

Nikolas Ormaetxea, Orixe: Hiru Belarriko Gizona

PATZIKU PERURENA

«Zu, Jainko-ikusle, Deividens, Jainko-ikutzaille,
Dei-tangens, Jainko-usmatzaille, Deiolens,
Jainko-gustatzaile, Dei gustator, eta batez ere, zu,
Jainko-entzule, Dei auditor, atoz tulunbio onen ertzera,
itz ixilla edo Kristoren ixiltasuna entzutera».

(Jainkoaren Billa)

Orixeren sormen lanak gogo pittin batekin leitzea aski da, haietan *belarriak* duen nagusitasunaz ohartzeko. Euskara berritzaile, bihurritzaile eta edertzaile paregabe hark, belarria zizun zentzu guzien muin eta iturri. Belarria, gizatasun zentzuaren sustrai. Belarriak eutsiko zion, lo zegoelarik ere, jainkoarekin bateginik. Atzeneko hau bide zuen *hirugarren* belarri deitzen ziona.

Nikolasen bizitzako *belarri dunda taigabeaz* errazago ohar gaitezen, atzekoz aurrera aztertuko ditugu haren idazlanak. Herri fede izuneko honi utzi zion azken orduko testamentua, *Jainkoaren billa* izeneko liburua izan du zen. Mistikazale ez liteken euskal literatur zalearendako ere ikaskizun oparo izan liteken euskara samur, eder eta xoragarri batean idatzia. Hara zer dion guri orain dagokigun gaiaz 75. orrian:

«*BELARRIZ ERNAI EGOTEA: Jangoikoa ikusi aiña entzun egi-ten degula esan diteke. Siñistea belarritik dator, dio San Paulok: fides ex auditu, eta ein batean esan diteke, otoitzean ere begi ordez belarria artu ditekela. Nere ustez, belarri edo belarri bezelako zentzu gorde orri etzaio aski leku eman liburu mistikuetan. Geienez jendea begitarrago dala esan diteke belarritar baño; ala ere badira auetatik ere, uste baño geiago, ta auentzat ere itzegingo det. (...)*

Begiak lenago nekatzen dira, naiz gorputzekoak, naiz irudimenekoak, belarriak baño; lenago aspertzen dira. Ez al da errazago, bein Jainkoaren Liburu batzuk irakurri ezker, ango itz aiek belarrian uzten duten arribizi edo oiartzunaren bidez, gero irudimeneko begietatik pasaz, adimenaren belarri izkutuetaraño Jainkoaren berri ori sartzea? (...)

Jesukristo ez genuen ikusi, munduan bizi zala; baiña entzun, gaur ere entzun dezakegu. Elizan, Ebanjelioa adierazten digutenean, eta artarako dauden liburu ugari ta ederretan, gerok ere irakurriz. Eta itz aiek ongi

auznartu ondoren, aien arribizia edo oiartzuna edo erantzuna, oraindik belarrian gelditzen zaigu. (...)

Eta itz guzien ondoren, itz bakar bat entzuten degu erabatekoa, itz eta mintzo guzi aiek bakar biurtu balira bezela; eta azkenik, mintzo ua ixiltasun biurtzen zaigu: Jainkoaren ixiltasuna.»

Baliteke, orain arte leitutakoak, *apez usai* haundiskoa izatea. Baina, zaude trankil. Gogokin eta azarri pixka batekin hartzen baduzu, atzenera ordu, ohartuko zara kontu hau ez dela eleiz usai hutsekoa. Badakit neretzako lan gaitza dela, gai astun hau lantzeaz gain, zuri, Orixek iduritu txarra egina zauden irakurle horri, Nikolas Ormaetxea larru beteko gizona zela esaten ari beharra. Halare, sarreran behintzat, ezinbestekoa ikusten dut, tarteka zuri hori gogoraraztea, Orixegana egokiro hurbil zaitezten.

Orainokoa ikusia dugunez, *belarri dundak xorgortua*, isiltasunera, federa, jotzen zuen Orixek. Hara non hartzen duen, liburu berean, lehengo haria berriz, 110-115 orrietan barna:

«Fedea, oi fedea! Ez dezaiegun esker aundirik eman, zu etzeran beste argitasuntxo oiei! Ortze, fede orren ixiltasunean, irudipen guziak aldegiten duten ortan, margo eta kolore guziak lañotzen, desegiten eta itzaltzen diren ortan, ezagutuko degu Jainkoa, mundu ontan diteken bezela.

Itz bat bakarra egiten du Aitak, Semea; ixilik esaten du, ta ixiltasunean degu entzutekoa. Dio Gurutzeko Donibanek.

Bai arrigarri dala, Jauna, entzuteko zuk eman diguzun zentzu au! Ez eta bai ari nintzan batekin, begia baño areago ote zan. Ni belarriaren alde mintzatu nintzan, artzaikondo izaki. Nitun argibiderik oberenak ari eman ondoren, au esan nion azkenean: «Belarritik fedea» fides ex auditu. Zentzu au degu ernaiena lotan gaudenean; au degu esaneko Zure aginduetan. Ez ote da zentzurik oberena, otoitzerako ere?

Baña, zergatik egin diguzu berez ain lilluragarri, ain engañagarri?

Ikusten zaitut berriz ere, irakurle, hainbeste jainko eta fede hots entzutez nazkatuxea honezkero. Baina, aurrera segi nahi bazenu, kontseju tiki hauxe emanen nizuke: Jar ezazu, *jainko* hitzaren lekuan, *iraultza, demokrazia, ekologia*, edo beste zernahi hitz; edota *fede* hitzaren orde *poesia, dirua* edo beste edozein hitz politt, eta segi aurrera. Belarriaz Orixek egiten dituen gogoeta hauek ez baitira elizan bukatzekoak. Hitzun eta entzule garen edozeinendako dira oso gogakizun baliagarri. Orixek ohartua zizun, belarria oso liluragarri eta engainagarri zela. Baina, elizan bezelaxe da belarria engainagarri, kale gorrian, tabernan, telebistan, paganoen biltzarrean, edota haragi grinezko orgiak egiteko gelarik lizunenean ere. Ez dizut berriz esanen: buruan sartua dizuten aurriritzi ergel bategatik ez dezazula itsu itsuan bazterrera utzi gai honek zuretzako izan lezakeen interesa; behar bada, gaur Orixeren esanak entzuteak, bihar edo etzi, ez Orixerenak, ez nereak, eta ez beste inorenak entzutera ez jartzeko argitasuna eta indarra emanen baitizu. Adi ezazu ongi behingoz:

»Esana da: «ardi billa dabillanari dena zintzarri ots irudi zaio». Bein eta bietan baño geiagotan gertatua zait: trenaren begira egon geltokian, eta bost minutuz lenago nik garbi entzun, ustez, datorren trenaren kalaka. «Eman da trena, ez dezetu aditzen?» esan nik, eta, «ez degu ezer aditzen»

aiek. Pasa beste bost minutu, amar, laurdena, ordu erdia, ta trenik ageri ez: or nere liluramena».

Irugarren belarria antxen asten da. fedearen ixiltasuna ematen digu. Barkatu bekit Jauna, nik otoitzean belarriari leku geiago emate ori, fides ex auditu oiñarri arturik, Zu, nere Jesukristo Jauna entzun naia, ta Zure ixiltasuna entzun naia. An, soiñu guziak moteltzen, galtzen eta ixiltzen diran artan, entzun zaitzagula kristauak Zu zerau, fedearen ixiltasunean».

Oraindik ez bazara fio nere esanaz, jar ezazu Jesukristo hitzaren lekuan Telediario hitza edo Gaur Egun edo Egunkaria edo holako zerbait, eta segi aurrera irakurtzen, gusto baduzu:

«Bere ITZA dun Semea guri ematean, eta beste itzik ez du, guzia batean itzegin zigun ITZ ortan, eta ez dauka geiago zer itzeginik. Labur labur esan: badira bai, itz entzun batzuk, gogoan eta esker onez artzekoak. Ez dira berrikeriak, ez berriketa luzeak. Itz oiek, esaten dutena bertan egiñarazten dute; beraz, eragindunak edo esana egiñaraztekoak dira. (...)

Gure giza izkuntza ez da geiagotara irixten, eta Ibanek alegiñak egiten ditu, gure animako ITZ ori metasunik meienaz azaltzen, baña alare motz gelditzen da. Irudimenak galerazi egiten digu gorpuzki ez dana buruz asmatzen. Latinez ere arnasa edo eguratsa, aizea, zuten: ispiritus, naiko lodi, meienetakoa dala ere. (...)

Arnas edo egurats edo aize orrek, bi gauza omen dakartzi belarrira: ukitzea ta txistu egitea. Aitaren Itz orrek ere bi ondorio omen ditu: atsegitea ta aditzen ematera. Egurats eta aizeak belarria igurtzitzean, ikumena jotzen du, ta txistuak, belarriaren beraren entzumena.

Ikutze orrekin batean, entzumenak atsegiñ aundia artzen du aizearen txistuan edo soiñuan, aizeak belarria ukitu utsarekin baño areago; entzumenaren animaren aidego baita, gogaideago, ikumena baño.

Animaren belarritik sartzen dan ITZaren txistu onek, zerkia danez gañera, egien eta ixilgordeen agertzea darama berekin. Jainkoaren Liburuetan, Beraren berri, belarritz ematen baitzaigu eskuarki edo komunzki, egi soil oietakoak agertzen zaizkio gure adimenari, au da, Jainkoaren ixilgordea. Ikuskari ta gorde-agerkari oiek ez dira gorpuzki, ez dute gorpuzkiekin aidegorik, ez aien laguntzailerik; gogaki edo ispiritu soil soilak dira. Orregatik egi egia da, Jainkoak Bere berri belarrien bidez ematen digula». (...)

Ez egin hankarik irakurle. Lasai. Jainkoarena, maisuarena, lagunarena, edo zeure maitalearena dela ere, has zaitetz HITZ horren muin bila, eta zeuregan aurkituko duzu atzenean. HITZAK bahitua bizi zarela konturatuko zara, hiztun eta entzule zarenez geroztik. Zure Jainkoa, nolana hiko ere duzun, sabelean daramazu. Jainkoz ernaldua bizi baita, entzule edo hiztun den guzia. Ulertzen irakurle? Ezin duzu desegin Hitzezko Jainko hori, horrekiko burruka besterik ez da zure bizitza. Hitza zuregan, harra sagar barruan bezala dabilkizu.

«(Behin izan zenetik) ITZ au eraginkor baita, eta bizi. Orregatik sartu zitzadaneko, nere anima loak artua esnatu zan; nere arrizko biotz oni eragin zion, samurtu egin zun, itzegin egin zion. Bereala asi zan nigan erauzi ta desegin, eraiki ta landatu; igartua ezetu, illuna argitu, makurra zuzendu, bide latzak bigun biurtu».

Horra hor irakurle, belarriak giza kulturaren duen eragin sekulakoa,

nahiz mistiko huts baten fede itsuan emana izan, herejerik bihurrienari ere jakingarri egiten zaiguna. Nikolas Ormaetxea, ume umetatik, ongi ohartua zen, gizakia, hitzak hezitako basaberea baizik ez dela: *ITZ eraginkor ark, nere arrizko biotz oni eragin egin zion, samurtu egin zun*. Orixeren literaturak, beste edozein mistikorenak bezalaxe, orohar, holako jakingarri asko du. Azken batean, erlijiorik hertsiena ere, mundu ikuskera edo filosofia hutsa baizik ez baita. Hala dio 230 orrialdean ere, sinismena beti lurreko eta bere inguruko gertaeratan oinarrituz:

«*Izan naiz Aralako Aingeruaren Elizako leizezulo edo tulunbio ura ikusten, edo obeto esan, entzuten. Ikara eman zidan lenengoz urbildu nintzanean, Teodosioren sugearen xixtua entzungo ote nuan. Ixil-soñu bezelako bat entzuten da. (...)*»

Beste leize aundietan au gertatzen da: botatzen dezu arri kozkor bat, eta goiko ertzetan, arkaitzetan koska egitean, entzuten dezu aren otsa, pixka-pixka itzaltzen dan arte. Tulunbio honen agoan ez da ezer entzuten; ez diogu ertzik arkitzen, ez diogu azpirik eta ondarrrik arkitzen. Ixiltasun osoa entzuten degu. (...)

Et Verbum caro factum est. Iru aldiz egunean gogora ekartzen digu ezkilak, eta munduan egiten dan otoitzik ederrenetako batekin erantzuten diogu ezkilari. Zenbat milloiek batean! Gogora itzazu, irakurle, zuk zere denboran senti izan dituzun biotz-dardararik goxoena, Angelus entzutean. Nik beintzat, ezin aztuzkoak ditut, Espuru-mendiko iru ezkil-ots aiek batetsuan: Azkaratekoa, Lizartzakoa ta Orexakoa. (...)

Biltzen ditut nere bizi guziko biotz-eragiñik legumenak, eta geienak tulunbio ortatik irteten dira, ta orrera itzultzen dira ixiltasunik aundienean. Et Verbum caro factum est: Jaungoikoaren Semea gizon egiña. Oi, tulunbio! Oi, misterio!».

Segi dezagun ordea, *belarria* gidari dugula, gure bidean. Orixek *Quiton Arrebarekin* delako liburuan *Donibane Gurutzeri* eskeintzen dion pasarte batean, honela aitortzen dio behin eta berriz arreba *Dunixiri*:

«*D.- Zentzu guzietan begia daukate nagusi, eta aldez alde ala ere da; baiñan zenbait gauzetan eta askotan, belarria ez ote nagusiago?*»

N.- Ala daukat nik ere: fides ex auditu; belarriz siñesten dugu. Auditus autem per verbum christi; belarriz siñiste ori berriz, Kristok esanaren bidez.

D.- Izan ere, Ianko Semearen izena VERBUM da: ITZA; beraz, zerbait entzungarri eta batez ere belarriari dagokiona».

Hauxe duzu nere galdera zoroa? Izan ote da inon HITZ horrenik gabeko giza kulturarik? Non bukatzen da *aberetasuna* eta non hasten *gizatasuna*? Ez ote du HITZ horrek bereizten muga gaitz hori? Nik uste baietz. Areago: HITZ horretan galtzen da *gizatasuna* bera ere. HITZ horren zentzu bila. Sendabiderik ez duen minbizia bezalatsu da HITZA *gizakiontzako*. Izanez ere, zer egin lezake, sagar gorri eder batek, barrengo mami zurian dabilkion harraren aurka.

Aurrexeago, gauza beratsua dio, Nafarroako *Uitzin* hazia eta hezia zen poetak, hainbeste kezkatzen zuen entzumen zentzuari buruz:

«*Aren aurpegia atertzen zaigu begi-irudimenean, zueri beste edozein gizonena bezala, aspertu egiten baitzaigu irudimen hori, begia bera bezala;*»

alare aietaz oroitzea etzaigu atertzen belarri-irudimenean. Beraz, ebanjelio-ko izen mintzo, oiartzun, ixiltasun ori askoz luzeago dagoke animaren belarrian, Aren aurpegia animaren begietan baino (...)

N.- Neretzat bezala ari zera, ni oso belarritar bainaiz. Beste aldera, begia ez diteke esan belarria baino bikaiñago denik. Naiago dela bai, itxuraz. Argiak margoari, bertatik bertara laguntzen dio; ez ala soiñuari eguratsak. Tximista lenago dakusagu ostotsa entzuten dugun baiño, egia; baiña, mintzo-argailu berri auetako baten ondoan gaudela, era berean entzun ere egiten dugu oiñazturaren zarratakoa (...)

Begiak zazpi margo oiñarri bereizten ditu, ta belarriak beste zazpi edo sei, baiña margo-antxaz eunka gutxi bereiziko dizkizu; baiña belarriak millaka asko. Eta asko batean eta bereiz. Zazpikote bat entzuten ari bazera, bakoitzaren mintzo lerroa entzungo duzu, ta zazpiak erabat ere bai. Begiak ez du olako doairik».

Erne egotea: *adi* egotea, *entzuten* egotea izaki. Esan nahi baita, Jainkoarekin egotea, Izpirituenan egotea. Beti gogoa lantzen eta edertzen egotea. Eta gogoa, azken batean, *izpiritua*, *anima* baizik ez da. Gauzak horrela, ez da harritzeko, Orixek eman zuen guzia *hitza edertzen* eman izana. Alde batera, etsai bezala hartzen zuen hitza, gainerik ezin kendu zuen etsai bezala; baina, bestera, hura maitatu beste erremediorik ez zitzaion gelditzen; eta taigabeko burruka horretan neka neka egin ondoren, isiltasunera jotzen zuen, lurreko mintzo pasakorrei entzungor eginez, betiereko goi mintzo ederragoaren bila.

Borgesek esana da: »*Mendebaleko jendearendako gauzen funtsa ukitzen eta ikusten* dugun hartan datza. Ekialdeko jendearendako ordea, *aditzen* den hartan datza gauzen funtsa». Esaldi honek ederki erakusten du, Orixeren hirugarren belarria kristautasunaren iturbururaino iritsia zela. Zer da bestela, mendebaleko kristautasuna? mundu zaharreko, India eta Txina aldeko, mistizismo zaharreko aztarren nabari nabariak gordetzen dituen dotrina ez bada? F. Nietzschekek gauza bera aitortzen zuen: «...*la religión cristiana es oriental y feminista. ¡ Oh, el lenguaje!* esa vieja **hembra** engañadora. Yo creo que no nos vamos a desembarazar de **Dios** mientras sigamos creyendo en la **gramática**». Hitzean azken batean, hitz arautuan. Behiala ekialdeko jainkosa zaharrek iradokitakoan.

Saiakera gisan belarriari buruz Orixek argiro adierazi zituenak horretan utziko ditugu. Gai honi dagokionean, nik ez ditut aztertu, ez *Aitorkizunak* ez *Meza Bezperak*. Izan ere, iduritzen baitzait lan hauetan Orixek ez zezakela tankera honetako eritzirik inolatan inola eman, ez belarriaz ez bestetaz, nahiz eta, haren belarri kutsua nonahi ageriko den. Hona, esate bateko, *Benito Santuaren Erregela* nola hasten den euskaratzen: »*Adi itzazu, seme, maixuaren aginduak, eta biotzeko belarria* makurtu ezazu» . Nekez esan zezakeen hori, Orixek bestek. Esanak esan, jo dezagun orain, haren poematan *belarri kontu* horrek erakusten duen maiztasun ikaragarria aztertzeraz.

Deus baino lehen, errepara gaitzen Nikolas Ormaetxeak eredutzat bezala zeukan Gonzalo Berceokoaren »*La métrica del verso*» satirak zer dioen; ez baitator alperrik, bere olerki guzien sarreran jarria. Poema bere osoan beharrean, lan hau enteintzeko lagungarri litezken pusketa batzuk bakarrik ekarriko ditugu honara:

*En nombre de Dios Padre que da la luz del día,
e del Verbo Divino fonte de la poesía.
e del Espíritu Santo, inspiración e guía...*

Orixek ere ez ote zeukan bere burua halakotzat: hiru senide sabelkideen argibide eta gidaritzat? Nik esan behar banu, bai.

*...Cerrad, cerrad los ojos; abrid bien las orellas
ca la poetica ciencia es sólo para ellas.
A qué vienen las líneas, más longas o breveciellas,
ya para cantar amores, ya para plorar querellas?...*

Gero ikusiko dugunez, Orixek halaxe egiten du beti: begiak itxi eta erne entzun, inguruko hots guziak ausnartuz eta gaindituz, bere baitako isiltasuna aditzera iritxi arteinokoan.

*...La pintura y la escultura a los oios se refieren;
qué más les da a las orellas, si a ellas bien fieren,
cuatro sílabas, ocho, doce, las que quisieren?
que más diera si los versos como prosa se escribieren?*

*El visivo criterio no es para los versos;
oios cerrados pueden percibirlos bien tersos,
en coplas o sin coplas, e con ritmos diversos,
complidos en palabras, en belleza sumersos.*

*Váleme Dios! Qué reparo? Rimar primero con cuarto
e segundo con terzio: de escucharlos estoy farto!*

Ikus, seguraski ere honen eraginez Orixek Barú-Mendian poemaren sarreran egiten dituen oharra. Tankera berriko neurtitzak: »Gure kanta neurriak, oso astun gertatzen dira irakurtzean, batez ere zortziko nagusia»..... etabar, etabar... :

*Pazienza tiene la orella para seguirles oyendo
a esos vates matachines. A los tales non definiendo.*

Ondoko hitzok, gaurko euskal poeta gazte askori ere bota lekizkiokela uste dut muturrera, lasai aski:

*Respetad nuestras orellas, Poetas malenseñados;
cultivad aina el ritmo, non sigais desorientados.*

*También yo fui enganado con copla siempre cuaderna.
Según la ley del oído, tanto daría la terna
e non quiero mormurar de la métrica moderna.*

*No hay verso sin cesura: las rítmicas unidades,
análogas solo valen, si non son egualidades;*

Ikus Orixegan, aurreko aipamen beraren beste pasarte hau: »Lerro-tena, erdaraz cesura, sei aldiro, naiz bostaldi, naiz lau aldiro, beti seikoarekin naste, ta seikoarekin bukatzen dela. Gerko-latinek bazuten tainu ontako neurkera».

*Ritmo e mas ritmo nos pide el verso en poesia
ese es el vero sonar, esa es la vera armonía.*

Orixen ongi ohartua zen *Euskaldunak* poema egitekoan, nahiz bertso neurkera desberdin asko erabili, betibateko neurkeran hagitz astun egiten zela poema, bai begira bai belarrira ere. Horregatik gerozko poematan erakusten duen errimo biziago eta barren neurkera ugariago eta atseginagoa. Honetan, gerora, Gandiaga batek, esate bateko, hark ez bezalako erritmo eta neurri ugaritasuna erakutsi zuen.

Gonzalo Berceokoaren satira horrek Orixeren belarrian izan zuen eragin handia ikusi ondoren, pasa gaitezen bere poemak *entzunez* aditzera.

Apropos *begiari* eskaini zion *Argi eta Margo* poeman ere, *belarria* jarri dizu aintzindari. (Gogora zaitetz nola, hasten den Berceorena). Belarriak darama argitara Nikolas. Ongi pentsatzen jarriz gero, nor ez? Hotsa duzu beti argiaren iragarle. Hotsa ilunaren iragarle. Euskarak hagitz ongi jasotzen du naturak erakutsitako lezio hori, «*goiz txinta, argi zirrinta, egunaren txintxa, egunaren txirrintxa, ilun txinta, ilun txintxa, ilun txirrinta*» eta antzeko esanera zaharretan. Bistakoa baita, *txinta, txintxa, txirrinta* eta gisako izenlagunak begian baino lasterrago jotzen dutela belarrian, nahiz *argitze/iluntze* orduen iragarle izan.

Izadi osoko pizti hegaztien txirtxir hotsak adierazten digula dirudi argi urratzea. Hala berean, iluntze garaia. Beraz, oso burutapen zuzena dirudi Orixeren honek: benazkoa eta enpirikoa aldi berean. Orixek beti gauzen muinera jotzen baitzuen. Bere hitzetan esateko, ez baitu balio haundirik «*buruz egi asko iraultzeak; baizik eta iraultzen dan egi ari barru-barruko mamia billatzea, ua jastatzea*». Gai honetan ere berdin: *belarria* patu dizu argiaren adierazle.

Izanez ere, noiz erne noiz zozoilo, *aditutako* hark eragiten baitio beti gure begiari. Halaxe da, *adimenik* ezean, begi hutsez apenas deusik bereizteko gauza izanen ginaten. Hau, inork baino hobeki, umetan bizi-tua eta frogatua zuen Orixek, eta gerora, noski, burubihotzez landua. Horregatik heltzen da *belarriz* koloreen ederra ekarriko dion egunsentiko *argitasun* berrira ere, aipatu berri dugun *Argi eta Margo* poemaren sarrera honetan:

*Egalak astinduz oilarrak jo digu argitu baino len;
ordu bete gero, doi dut argiaren xintik autematen.
Argi urratzean txori bakartien txio dut entzuten.*

*Ardia jeiki da, gorputz-eragiñez jaurtiz otxikara;
alai zabaltzen du muñotik zokora jolae-dandara;*

Egun berriaren igarle den goiz musika horrek ernatzen gaitu. Belarria dela medio zabaltzen ditugu begiak argitara. Hotsak gidatzen gaitu begi zabalen ninira datorkigun argitasunera. Euskal sinismen zaharrean jainkozkoa zen eguzkiaren argitasun zuri horretara.

Zenbaitek bere olerkigintza mistikoaren gailurrean jarria dion *Getsemani* poeman berriz, *Eseri emen* delako zazpigarren kantuan, alderantziz, begiak ixtean *belarrisoinu xorgorra* baizik ez du aditzen, gure mistiko menditar hezigaitzak:

*Bi begiak elkar-iges; buruz, gogoz, apala
Nork esan lenengoz ordun entzungo zindudala?
Ari nintzan? Xor nindagon? Neronek ez nekian.
Musika bat ezin kenduz nedukan belarrian.
Xor nengola, ta, soinua ixilazi naiean,
otoitz ordua goxaro joan zait ezarian.
Begiak xorturik baina belarria zurekin
Askotan zertara gauden ezin dezagu jakin
Obe genuke Zu suma, gogo, zentzu, denekin:
baina barren erdixorrak laguntza du batekin.*

Belarriarekin, alegia. zentzu guzien buru den entzumenarekin. Ondoren, *soinu xorgorra* doidoi entzuten dueneko *loxorroaldia* datorkio:

*Ez nintzan azkeneraino zer egiten nun jabe.
Alperrik astia galtzen ote nizun erabe;
baina sostean biotza biur zitzaidan labe.
Sendatua sumatzen dut nere kemenik eza.
Xorraldiak indar ori nolatan eman leza?
Indar orren bear nintzan gizon irauñ baneza.
Ordun baitaratu nintzan musikaren barnean
Zu zintzadala leunki gordetzen biotzean.
Ez negon xor, ez, Zurekin nengon gogo betean.*

Loxorroaldietan, *loaldietan*, jainkoarekin bateginik segitzen du Orixek, belarria dela bide. Beste zentzu guziak *lotan* daudela, belarria dizu guzien zaindari, jainkozko musika eta hitz jario goxoa bitarteko.

Dena den, Orixeren *belarri kontu* honetan, *loak* berebiziko garrantzia du. Aldikako *herio puxka* antzera hartzen dizu Orixek loa, Jainkoarekin bakar isilean anima hutsez otoitz egiteko aldi gisan. Hona berriro, *Argi ta Margo* olerkian bertan esaten duena:

*Gauak illak zitun, argiaz batean, margo bizi oro
Egunero ditu lurpera; argiak pizten egunero.
Illunak lo nauka erio; argiak pizten nau osoro.*

Ikustazu, *Euskaldunak* poeman berriz, *nortu* eta guzi egiten du loa, *Mari Bekaine*ko izena emanez. Euskal sinismen zaharreko *Mari* horrek ere, zer pentsatua ematen du. Gero ikusiko dugunez, *Mari Bekaine*kok baitarama poeta, jainko kristauagana:

*Olako lau ipui arin jalki ditueneko
etorri zaio norbaiti Mari Bekaine
Kantuak balio dizu loak uxatzeko...*

Baina, Orixek loa belarriarekin nola lotzen duen ikusteko ez dut uste ondoko pasarte hau baino zoragarriagorik inork inon aurkituko duenik. *Olentzaroz* amona ipui kontari ari da sutondoan:

*Ipuiez asper-gabe illoba aspertua
loak menderatzen du agurka burua.
Jende larriak ez du oraindik ordua;
ark ere noizbait orde, itzaltzen du sua.
Anka sartu onduko loak ditu artu.
Ez die elur malutak loa debekatu.
Ardiak joalea auznarka asi baitu,
arek tantaka loa gorputzean sartu.*

Erreparatu al zara pitxi dizdizari honetan: «**loa tantaka gorputzean sartu**». Aleunka ditu Orixek holako pasarteak, nahiz baserri girokoak izan, nonahiko eta noiznahiko irudi poetikorik modernoenari ere batere inbidirik ez diotenak, eta Orixeganako aurreritzi xikin bategatik gaur egungo euskal poeta usteko hiritar askori oharkabean iraotzen zaizkionak. Antonio Machadoren *Las Campanas* poemaren oihartzuna sumatzen dut nik arestiko pasarte eder horretan:

*Las campanas del alba sonando están
Como lágrimas de plomo en mi oído dan
Y en tu sueño niña, como copos de nieve serán*

Orixeren irudi hori gozatzeko, ordea, gau isilean auzmarrean ari den ardi joalduna aditu behar ohetik. Nik aditua dizut sarritan; baserrian jaio eta hazia izaki. Edertasun poetikoaz gain, beste gauza garrantzizkorik ere erakusten du Orixeren pasarte horrek: Soinuaren edo hotsaren betibatekoak, mundua mundu denetik, gizakion beste lau zentzuak engainatzeko eta loxorrotzeko duen gaitasun aparta; giza hezkuntza eta kulturaren garapenean hotsaren errimo neurtuak izan duen inportantzia gaitza. Beti bateko joale hotsak *tantaka* sartzzen zion *loa* gogoan Orixeri. Ez ote digu gaur guri igoal berean gogoia xoxotzen betibateko *telediarria* edo *telenobela* entzuteak? Nik uste baietz. Dena den, gai honek saiakera baterako haina emanen luke, eta segi dezagun guk geurean.

Orixek ez omen zuen nahi izaten gauerdian esnatzerik. Joxemari Arnalde ilobak ere hala esaten du *Jainkoaren Billa* liburuko sarreran. Nere irudia da, noizbait amets gaiztoaren baten erdian esnatu bide zela, bildurrak eta izuak hartua, eta harengatik ziola gero sekulako bildurra, gauerdiz esnatzeari, berriz ametsetako mundu zoro deabruzko harekin topo egin nahi ez zuelako. Hona, agian berari gauen batez gerta zitzaiona, nola jartzen duen Mikelen ahotan, *Artajorra* poeman :

*«Kontu ok utzi eta dezagun lasai lo;
ez naiz ni gauerdian jeikiko geiago.
Bein jeiki nintzan ustez zerbait ikusteko;
gogoia galdu nizun berriz jeikitzeke».*

*–«Zer bada?– Zuri-zuri etorri ta joan,
atorrutsik zebillan Illargungo landan
Beste munduko bailitz, arrituko zinan.
Gero.... larru gorriak irauliz intzetan».*

Beraz, infernuko deabru antzekoa azaldu zitzaion irudipenean, eta larrialdi gaitza igarota zen nonbait, gaztetan. Hain zuzen ere, **Illargungo landan** azaldu zitzaion **sorgin deabrua larru gorritan**. Badakigu, giro horrek nora garamatzen: *ilargia, sorgina, larru gorrian*.... kristau sinismenak gogotik errefusatzen zituen gauetzko deabru herejen mundu lizun haragikoi madarikatura, alegia. Horrengatik: jainkoarekin bat eginik lo zegoela, belarri xorgorretik indar berriak hartuz, zentzuez gaindiko harreman goxo hura zakar eten eta gauerdiz ametsetan esnatzeari zion bildurra. Gezurra badirudi ere, Orixeren goi siniste guziak, lurreko bizitzan berari gertatutakoetan oinarrituak eta sendotuak ageri bait dira beti.

Esanak esan, oraindik galdera hau igoal erabiliko duzu buruan: Zer ikusteko *dauka ordea, loak belarriarekin?* Ikusteko haundia Orixeren baitan. Baita gutako edozeinen baitan ere, elkarren arteko mugak ongi bereizten zail egiten bada ere. Hara *J. S. Bachi Elizan* eskeini zion poeman dioena:

*Ixil organua, ixil ezkila
An nagozu bakar eliza xokoan
Begiak ertsirik Ernai? Lo-xorroan?
Eztakit bi oien muga non dagoan.*

Halatsu dio *Betiera* delako poema zoragarrian ere:

*Nerau neronengandik atertu nai ez nun;
baña ba dator loa, bekaiñetan astun.*

Are ederkiago eta dotoreago esana du, *Isiltasuna* poeman:

*Itxi ditut begiak, loari eder etsiak;
eme emeki itzali zaizkit basoaren marmariak
bañan oraindik etsirik ezin artu dute belarriak.*

Zoragarria atzeneko pasarte hori. Ikusten duzu beraz, loak eta belarriak elkarrekiko duten lotura xoragarria. Halare, *loarekin* dena galtzen ez duelako froga, *Sinismen garbi* delako poeman azaltzen du Orixek, inon denetan argienik:

*Kartusin ixil, gau-loaren mende
Gauetz zuten xinta, otoitz eta salmu
Aiekin txandaka, zaitzala goretsi
ez baitu txori ark gauetz loa galdu.*

Nahiz *lo* egon, baten belarran taigabe ari den *soinu xorgor* hura duzu Orixek adierazten dizun *txori* hori, eta haren baitan dizu Jainkoa ere. Isilak eta loak beti jainkoagana daramate Orixe, baina, hori bai: belarri bidez beti. Loak, aurretik eta ondotik, hor izanen ditu belarri biak erne, eta lo gozo egiterakoan, jainkoarekin bat, *hirugarren belarri* xorgor batek segituko du, zentzuez gaindik, poetaren anima indarberritzen eta zaintzen. Hara zer dioen honetaz, *Jainkoaren Billa* liburuaren atzanean: «*Lo gaudela ere biotzez erne ote gaude Jainkoagana? Jainkoaren hitza baita arako ura: «Ego dormio et cor meum vigiliat: ni lo nago, baña biotza ernai daukat. (...) Nere ustez, beste pentsamentu xor batzuren artean, eta lo betean gaudela ere, barrenago ta beteago gaude Jaungoikoagana».*

Bestalde, Nola ez? Joxe Azurmendi ere ohartua zen Orixek belarriari zion grina itsuaz: «*Isiltasunarekin batera, Orixek sarri deskribatu du zurrunmurru betibatekoak, monotonoak, sortzen duen estasi antzeko asperraldi hori. Nonbait, Orixek liztorra zuen beti belarran. Itsasoaren, iturrien, begaztian nahiz hostoen hots betibatekoak eta haren belarri durundioak, azken urteotako poesian ia droga baten funtzioa hartzen dute Orixegan.*

Hona, lehen ikusia dugunaz gain, Joxe Azurmendik aipatzen duen *liztor burrunba* horren hotsak zernolako maiztasuna eta ugaritasuna duen

Orixeren poesiarik landuenean eta helduenean ere. Orogen buru jar dezagun *Itz eta Mintzo* ; izena ere zerbaitegatik jarria izanen baitu horrela poema zoragarri honek. Baina, poema honi ekin aurretik, gogora gaitezen, honen senide bixkia dirudien *Argi ta Margo* poema nola hasten zuen eta hartaz zer esan dugun sarreran :

*Egalak astinduz oilarrak jo digu. Belarrien poza!
Ogean ixilik, belarriak erne, argiraiñokoan.
Ixiltasuna da gogai onen ama. Noizbait argi xinta.
Jeiki naiz, jantzi naiz; besoak antxuma nago sapaillan.*

*Aralar gaiñean eguzki dirdaia. Bazter-intxaurrean
osto aiña txori, mozkor leuden gisan, txio zurrustaka.
Aingeru-ezkila. Ordun areago dandarekin leia.
I bai aiz, ni ba nauk. Sogortu nai naute; ni berriz, txistuka.*

*Gosal eta xuxen, ez etxetik urrun, gaztañadi baten
goi aldera noa. Legun eguratsa ni jarrita laster.
Ostoen urrunak arian arian lo-arma sartzen dit.
Lorik naiz ametsik aal goxoagorik neurtitzak egiter?*

*Gogaia goxatuz irakiten doi doi ari zait burua oarkabe
baiñan urren esnatzean, itzak txintxo datoz
bizar asko gabe, nik bear-neurrian lumaren ertzera.*

*Gingan eguzkia. Gaiñeko muñotik itzul egitean
Aingeru-ezkilla Lizartzan, Orixen, urren Azkaraten.
Denak entzun arte bidexurrean ni, ibil eta geldi.
Dandara bakoitzak belarri ta biotz dizkit dardaritzen.*

*Eguerdi ostean kukatzen naiz, bakar, dakidan xokoan
iru erritako ezkillen soinua ixil auznartzera.
Ordu oro zaida nolabait berritzen. Irurak jo dute.
Dandara luzeak zintzo deitzen gaitu Kalbari gaiñera.*

*Ikastolan aurrak. Urren ixilaldiz, gurdi negartia.
Ixiltasun artan, basoko lo-xuxta baiño biguñago.
Aren lagungarri erloiu-zintzailla arat onataka.*

*Loti naiz, ez gantar; ixilzale baña ez San Anton aiña
Ogera baiño len sapaillora berriz. Ez dut illargirik.
Izar dagon arren, illun gorotza da. Oreixain erreka
xurru xurru beian. Ez da entzuten ontzaren ulurik.*

*Ogean ixil da; ez ixil osorik.....
Belarrian beti sorgin soinua dut. Egiz ote soinu?
Beti dut lagundu erbeste negartiz, zeruaz oroitzen.*

*Honen hurrena, eskolan maisuak kastigaturik utzi zueneko eguna da-
kar gogora:*

*Lagunak etxera, ni gela beltzean. Argizpirik ez da
iñondikan sartzen. Baiñan andik laister piano-soiñua.
Arentzat itxirik ez da, baiñan ezin itxi belarria.
Argia sar ezin oi dan izkutuan sartzen da mintzoa.*

Ez beti. Gerta zait, ostots bildurgarriz etxeakoak oro

*jeiki baiña ni lo. Esan ordun neri «Mikolas» agopez;
agontzen naiz usu. Izenak zer ote? Atzarri ni beti
entzuteko, baiña entzungor besterik edozer entzunez.*

Honekin lotuz, errepara zaitetz ondoren, Orixeren fedea nola errotzen den beti lurrean berak bizitakoan:

*Zer gerta dakiket eriotz-orduan Jainkoak izenez
deitu nazanean? Beste denetako entzungor naitela.
Oi zer esnatzea! Zure besoetan esnatu nadilla!*

*Mintzo denen mintzo, Aitaren ITZA ZU, sar zakida sakon
nere belarrarian. Ez dezadala nik beste zerik entzun
bizi naizen arte xoko gorde ontan ixiltasunean.
Soiñu denen soiñu, Jainkoa, belarriz dezadan oiartzun.*

Honela bukatzen da *Itz eta Mintzo* poema, edozein xoratzeko moduan. Nere iduriko Orixek umotutako poemarik ederrenetakoa da. Ez da euskal poetarik, denik eta hereje deabruenik ere, poema hau gogoz leitu ondoren hunkitu gabe gera ledinik. Bestela, ez da poeta, ez da jendaki gogobihoztuna, ez da euskal hiztuna. Baldin poema hau eskura baduzu, osoan irakur dezazula eskatuko nizuke, geldiro ahogozatuz. Barne errimoa eta musika kristalezko horrez gain, mamia ere ez baitu hortik honarakoa.

Baina, ez da honetan bukatzen Orixeren *belarri sorginduak* jaso zuen oihartzun ederra. Badu holako pasarte ugaririk eta barrenkoirik aski. Beti gai berberen inguruan ibiliko zaizu, baina, beti berri eta harrigarri. Gai bera hainbestetan errepikatuz irakurlearen belarria ez aspertzeak ere, ez dizu merezimendu ttikia.

Dena den, hemendik aurrera, esplikaziotan luza gabe, *belarri hots xoragarri* hori nabari deneko pasarteak emanen dizkizut zerrendan. Gero, gusto baduzu behintzat, poemak osoan irakurtzeko lana zure esku utziz. Nere aburuko, *Berraondoko Meza* duzu, osorik leitu beharreko poema horitako bat. Hona zati batzuk:

*Erdi erdian, balitza nehon erdirik
Etxea dago mundu ororen ixilik.
Aretxeari marrumaz asi da beia;
ezkilla orde nere Mezarako deia;*

*Ixiltasunik ez nun osorik aditu
Isiltasunak bere zurmurrak baditu
Eliz ixillak gogora bear banitu,
Au bezain ixilik ez dut nehon arkitu
Agur oraikoz, bego zuen abarrotsa
txorien txinta, iturrien pilpil-otsa,
oian itsuan muskil orrien asotsa,
itsasoaren marmari naiz ostotsa.*

*Bego latiña, bego mintzai oro ixil
Jinkoarekin kuku neregan nadin bil.
Ixil Meza, obe dut ixilik egon;
Ez dut zurmurrik entzun nai nehon
Otoitza goxo egiten da Berraondon.*

(Berraondoko meza)

Horrek hots ederrik izan badizu, nik uste *J.S.Bachi Elizan* poemak ez dizula zakarragorik izanen :

*Ixil organua, ixil ezkill,
Aitaren ITZA da, baña itz ixilla,
ixilik ari naiz ixil orren billa.*

*An nagozu bakar Eliza xokoan
Kristoren ixila dutala gogoan.*

*Aldia zer danik galdu dut aria.
oparo dut artzen sineste guria
Ordu bete, gozo, joanik abia,
neretzat an dago orratza geldia.
betiraundearen irudi bizia.*

Poetak denborararen zentzua galdu ordu, hasia da organua Bachen *Koru eta Fuga* jotzen:

*Asi da, ari da iruten, ariltzen,
ekin eta jarrai, bilbatzen, eiotzen.
Ari albiñua sei notak atontzen:
aiek, itzul, iraul, iñoiz ez aspertzen
itokin antzera biotz au xulatzten.*

*Bukatu da FUGA, ixil organua,
piztu da neregan Maitearen sua.
Ixiltasun ori, orain da goxoa:
legun musika, legun soñua...*

*Otoitz-ondo onek badu goxo-litsa:
bakartasun ixil geigoren irritsa
Ai guritasun au betiko balitza.*

(J.S.Bachi Elizan)

Komeniko litzaizuke poema hori osoan entzutea, hemen emandako ogipapur xuri hauek oratuz mami gozo egin dezagun. Ondoren, honatx, Joxe Azurmendik sinalatu bezala, Orixeren belarrarian etengabe joka ari zen *liztor burrunba* haren oihartzun isildua:

*Gatzuna lurrean, artaldeak bakan, ez zugatz, ez txori;
oro sorgor, baiñan erne dut belarri
Ikusteaz aserik begia dut apal niganat itzuli:
ez mandeuli, ez liztor, ez eltzo, ez euli,
barneko musika naiz entzun-egarri*

(Bolibiko zabaldian)

*Euli urdin bat erdian egan dabil, ala geldi dago?
Zeru garbian Kondor bat ixil, egal-ontzitik gorago.
Emengo bero zakarrenetan, aroaz azturik nago.
Atsegin onek sarrarazten nau nere baitan barrenago.*

*Ez dut entzuten txori-txiorik, aizerik erle-soñurik
bidez nekatu gabe bai nago, ez eta nere pilpirarik.
Zer entzuten dut adi nagola? Nere arnasa bakarrik!
Iñon bai al da pake artzeko bakarrago dan gelarik?*

(«Amate» baten itzalean)

Agi denez, Ameriketako bakardade isilean, nabarmendu egin zitzaion poetari, betidanik belarrian *ari* zitzaion *sorgin xixtu* barrenkoi hura.

*Nere belarrian betiko xistua ezin dut sumatu
kolkoan arnasa bakan, biotzean pilpira larritsu,
izarren ixilak, nekatuen loak, entzuten uzten du.
Ixil da burua, izketan biotza; baina nork atzitu
zer dion? Berak bai, oiartzunik ez dun itza bere baitu.
Guzia biotz naiz, itza dut nerekin, ordu bat, ordu bi
Itzik ixillen au biur ledi mintzo, biur lekit oiu.*

(....)

*Gero barne-barnez artu dut arnasa, bakarrean iru:
gorputz unatuak bere saria nai, oiera dei digu.
Lo bete daudenak esnarazi gabe, ixil nauzu sartu,
oin, gerri ta beso, izaretan erdiz, beroaren izu.
Gogo bil-bil dut gorde magalean, laster sogor, itsu;*

(Pampa-etan izar)

Beti gai beren inguruan dabilkizu poetaren gogo: *arnasa, biotza, isiltasuna, loa...* Eta guzi horren kontua *belarriak* eramanen dio beti:

*Irakur dezadan jardun goitar ori itsaso-ertzean
Urrungo urrunga, uinena, itzena belarriz artzean
Sar bekik ots hori nere gogoaren muinik barrenenean.*

(Azken afaria)

Ez zaitzala poemaren izenak engaina. Irakur ezazu osoan *Azken Afaria* poema, eta tartean topatuko duzu bukaerako hau bezain pasarte ederrik asko.

*Zure itzala zan, zirrara leguna,
gorputzaren baiño anima-muñean
Zaiñetan txingurri, dardar betazala,
urrundik ostotsa entzun dan einean
Artzaik alaxe ekaitzaren ziztu
bizkorretik etxe barnera sartzean
otsak urrunago entzun, ta garrak
sortzen dun urrunga bigun sukaldean.
An zeunden, etziñan ordea dardara
ez soiñu. Barnago zaude ixillean.*

(Lurden)

Orixek, nabari du ederki, bere belarri mistika, bihotzean sakon barren-dutako hots bizitan oinarritua duela. Orixeren literaturan nekez aurkituko duzu gexurrezko asmakeriarik. Haren poesia, benazko bizikizun sakonetan errotua duzu hamarretatik bederatzitan.

*Mendi ta zelai, itsaso, zeru; beste sortu litekenik
Aien oiartzun guziak baino mintzo ozenagoa dut nik
Eguratsa aitzen dan eran ez da agortzen menden mendean
Au daukat, oiuz atertu gabe ilun onen etxapean.*

(Utsaren antza: illundegi)

Segidan datorren *Getsemani* poeman, berriz, ur xirrintak darama jainkozko xurmur urruna goxaro sumatzera:

*Begien zoramenari egin badiot uko
ikasle aien antzera ez nau loak artuko?
Ur-xurrusta dut erdian: onek nau esnatuko.
Eihara-zaina bezala ez al nau sogortuko!*

*Ur-xurruxta dut barneko musikaren laguna;
xurrut orrek guritzen du biotzaren barruna.
Zertako gogoetatuz alper neka garuna? (I)*

*Ur aundien zurrumurrua entzun dezagun urrun
ez xurruxtaren soinua baratzean bezain legun
Geldi bekit belarrian soiñu oien oiartzun. (II)*

*Nere baratzak erdian badu txoritokia.
Zer sumatzen illun artan? Jaun auspez eroria!
Belanez jartzen nakio, entzun nairik adia.*

*Alboan ur-xurrustari ematen diot giltza
ixilduz Aren arnasa sumatuko balitza.
Gaua baiño ixillago da Aitaren Itza.
Barna korapildurik ezin nakio mintza.*

Poeta, zure gustoko ez diren goiko fedeizunetan galdua dabilela uste baduzu, ohar zaitetz ongi ondoren dioenaz. Berriz esan: ez baitu Orixe, naiz mistiko izan, oinarri lurtarrik gabeko fede hegaltxuriak inoiz galdu:

*Lizardiko Malkarrean gaxte nebillen artzai,
ardi baten joalea oianean entzun nai.
Arnasa geldiazirik bidean negon erpai,
txiliñik entzuten ez, eta bioz-pilpil utsa bai.*

*Ala emen: sumatu nai Jaunaren bioz-miña
miñ nizun , entzun nai eta ezer entzun eziña.
Baiñan entzunik ez ote geituko nere miña.*

*Ixil! Bildurrak len antzo arnas-ateri nauka.
Giltzaz berrierazi dut uraren erantzuna.*

(Getsemani V)

Arestian esana indartzera besterik ez datoz hurrengo pasarte xarmagarri hauek ere:

*Santa Rosako basora otoitz egitera noa.
Aizerik ez, ixil billa; beti pake-zur nabilla.
Ezeren txintik ez dantzut, Zu soilik entzun nai zaitut.
Urbildu naiz oianera, eguneroko bidera:
txirritak betbetan, polatuen ziztauetan!
Aterrune gabe ari, bi belarrien sorgarri.
Beti bat, la dudakoa, iñoiz ez ixiltzekoa.
Gure aitonak irrintzi etzun egiten ain jantzi.
Donostian ala turuta , arraunketa burututa.;
bainā an ontzi bakoitza, doiñuetan banakoitza.
Au buruko xorapena, txirritek dakardatena!
Non dut nik ixiltasuna, otoitza berakin duna?*

*Kaiolan ixil txoria: xistuz banintzan asia,
azkarrago bere kantan, ni garai-naiez asten zan.
As nadin ni ere berdin, txirriten nagusi nadin.
Idurituz Uitzira, an Korpusez Elizbira
Otoitza gaur kanta bekit, ori egiten maiz dakit
Ango ezkillen dandara, garbi belarrietara. (...)
Txirritak ixildu dira, bukatu da Elizbira. (...)
Eliz artan dut gaur pake, itxurik arki nezake.
Naiz soñu oro nabari, nere belarri-mingarri,
barrenak daki txokoa, bera pakeatzekoa.*

(Lenengo Txokoa)

Lehenengo txoko hori, hamazazpi urterekin Nafarroako Xabierren zuen. Bazuen ordea, lehenegoko txokorik, belarrien mingarri ezik, goxagarri ere bazuenik:

*Sutondoko ots ixilla bezain atsegiñik
non entzun duzu, seme? Ez da ain ots biguñik.*

*Lizar arba ezeak gosal aurrean zizi:
esne pertzak gainezka, ots amandreami.*

*Talaburni gorian ore-ts gozoa,
itzuli ta iraultzean ixilduz dijoa
(...)*

*Bazkal aurrean, sagar gordiñak erre gai
zika asten diranean, neskamotxa aien zai.*

(...)

*Ots ok entzun ditugunai atsegin digute;
entzun ez ditutenai atsegingo ote die?*

(Su-ondoko otsa)

Galdera bera egiten diot nik nere buruari, hots horiek denak sarritan entzunak ditudalarik. Horiek eta askoz gehiago ere bai:

*Etxean bildu dira, bei, ardi ta beor
oillo ta zerriekin adiskide jator.
Zintzarri, marru, beka ta karaka legor;
inongo musikari onek ez dio zor.*

Nahigabeen *Euskaldunak* poema nagusira sartu garenez gero, entzun ditzagun poetaren *belarri finak* hartan jasotzen dituen hotsik nabarienak. Artazuriketakoan, balizko bikoteak egitea izaten zen umore eta esames bide. Oraingoan Mikel Gorriak maiteminez beretzat uste zuena, besteri eman diote :

*Irri-karkara bazuten emanik leloa
aukeratuz bakoitzari bere kidekoa
Ixillaldi osoa da andik urrengoa...
Ez dago lasa Gorriren golkoa.*

Hara zeinen konparazio ederrak egiten dituen poetak ondoren, berak bizi izandako irudietan dotore baino dotoreago oinarriturik:

*Ekaitza datorrelarik- eguerdia geldi-
belarri ertzean dabil furrundakan euli...
Gorrik inguruan suma zain gaiztoko berri;
leloa asi orduko, aize, ostots, arri.*

*Artzaia arnaska ardi-billa mendi garaiean
noizean bein gelditzen da zintzarri zurrean
Biotzean pilpira ta ziztu belarrian
besterik ez entzuten ingurumarian.
Alako zirrara artu Gorrik bi bider.*

Aizkorapustuan ari direla, horra jendearen zuzmurra berriro. Dudarik ez poetak belarria erne daukala, hotsaren lilurak xoratua iduri:

*Artean gaiñekoek bazuetn mar-mari
–alaxe erle-mulkoak umatzen dala ari-
baiño orain ixil dire, lasaiena larri:
izutu usoak ala pagoetan jarri. (dardari)*

*Ontan itzuli zaigu; ai zer istullua!
«Eu motell, gu gaituk gu! Ik duk apustua!»
Karraxi au mendira orduko or oiua!
Uitzi utziliko zaio bada arnas estua!*

*Karraxi berria da. Andik sei kolpera
bota du Leitzak ere, Oiuak ostera.*

*Or, an, zantzulariek Leitzara bidean
eskua jarri dute belarri ertzean
Lenak urrengoari ez dio deus esan:
soilik entzuten dute taupa biotzean.*

Inguruko basagizonak, Orixen bizi den Errekaldeko sukaldean biltzen dira, haren belarrien gozamenerako, hango eta hemengo hamaika kantu kontari. Bada, halare, beste hots zantarrik tartean:

*Basagizonak ara ziraden, igande gauez ta neguz
bizi gñanen belarri, biotz; pozten ipuiez ta kantuz.*

*Bitarte artan isil basoa, ez aste-eguneko oiurik
aizkorak, zerrak, otsik ez eta, gurdiak ere ez negarrik.
Ango musika errian, dena, aire berri biurturik.
Gaur Plazaolak isilarazi, trena arren ere, damurik.*

Oraingoan, Uitziko Santa Garazi ermitan bildua da inguru herritako jendea, erromeriz meza entzutera:

*Sagarakoan isilgunea... atarin beor irrintzi
ardi-joale, beor kalaska ta beien kaskoin-zintzarri
aien gaiñetik ezkillarena, biotzen eragingarri.*

*Ezpain-muña, ta dirua, gero: biotzean bero-ziña
amandre xarrak, agopeka, andik aldegin ezina
Gazte jendeak elkar arki du: badu bere biozmiña,
puska legorra jan bitartean, aurre egunetik egiña.*

*Gosalartean itz aspertu bat egiteko badute era.
–Neskatx eder au, andregai duzu? Barkatu galdera.
–Alpaldi ontan –erantzun dio- elkarri itzemanak gera.*

Zeinen dotore uztartzen diren hor, abere hotsak, ezkil hotsak, eta jendearen hizketak, denak elkarren osagarri eta edergarri. Antzeko zerbait nabari da *Letari* poeman San Migel Goiaingerua mendiz mendi datorrelarik:

*Ezkiil dorrean bi mutil daude noiz agertuko begira
Txanpurriongo biur-gunean, egin duteneko bira,
dandaraz dute usuagotzen biotz guzien pilpira.*

*Kanta-mintzoak pago tartean egiten digu durundi; mendiak erantzuten
du, luzaro gure ondolik.*

Gero, nekazariak hain beharrezko zuen euri gozoa dakar euskaldunen guztizko Mikel Santu Aralarakoak:

*Belarrietan egetotsa-antza; ez da jenderik ikara
zugaitz orria legorte luzez, ain baitzegoen igarra.
euria mardul, orria gogor, ots ori berezkoa da:
alor egarrrik txir egiten du kare bizien erara.*

*Esker eta arren, Eliz barnetik odeiaren burrunbotsa
entzuten dute, ta leioetan tanta larrien as-otsa.
Ordu luzean atertu gabe, lasatzen zaie biotza.
etxeraldian atergunerik izan ez ta lute poza.*

Zenbat hots eder dabilen hor, adi, baserritarraren belarria barrena, haren gogobihotzak pozez gozatzen! Nola beregandu eta ahogoza lezake hori, gaurko kalekume xangoxuri batek? Niri berriz, sarritan bizi izanda-koaren oihartzun zoragarria iduriki, oraindik barren barrengo xokoren batean joka ari zait!

Hurrena, San Migel euriak hezatutako goiko belatso haundian, segariak hasiak dira beren lanean goizeko bostetarako, eta han ere bada hotsik ugari:

*Batzuek sega zorrotzik, bela, besteak inguratzekeo
Zirrin eta koxk, zarrazta, kantu, pixtiak egon arren lo
esna ditute; batek miztoa atsaldean zorrotzuko. (ziztuka)*

*Txitaxere-lurra segak jo orduko berriro zorrotz bearra;
arraitza artuta sega gaisoari maiz daragio negarra.
Iru bat ordu, lanean ari izerdiz joan da paitarra;
barrenak kur-kur eskatzen die gosariaren indarra.*

Hori horko hots pila: zirrin, koxk, zarrazta, kur-kur. Onomatopein alderdi hau ez dut azertu, lana bestela ere nahiko luze eginen zitzaidalakoan. Baina, euskal idazletan, inor bada eta, Orixek maisu eta eredu aparta da holako hotsitzak erabiltzen. Hona banaka batzuk: gurgur sabela, gurgurka, listua kurkaz irentsi, pirpir zartagian, aizea balbal, edo egoa palpal, biotza pilpil, pilpira, punpuluka erori, punpaka, punpatekoa, euliak furrundaka, tuku tuku, tulunbio, tunka tunka ibili.... Holako hots ederrez josia dago Orixeren olerkigintza guzia. Baita haren hitz laua ere.

Juan Iturralde Suit iruñarrak hala zioen gure hizkuntza zaharraz: «gure arbasoen hizkuntza, nolabait esan, etzen izandu naturaren hotsak giza gogoan sortzen zuen oihartzuna baizik, eta euskara genuke horren adierazgarririk garbiena, bere onomatopeia bizi eta zehatz ugari horiekin». Eta ikaragarritzko aberastasuna du Orixek holako hitzetan. Ezin bestela izan, belarria zentzu guzien gidari zeukan poeta batendako. Euskal literaturan inork erakutsi badu euskarak zenbat eman lezaken halako hitzak sortzen, Orixek erakutsi du, oso bestelako hotsetara ohitua den kaletarrak kasu haundi haundirik egin ezpadio ere. Inork baino hobekiago Orixek erakutsi digu gure hizkuntza literarioa, gure lurreko izakiei berez darien hots altxorra

dela batipat. Gaurko kaletarra ordea, belarriz beharrean, begiz bizi da. Gauzen axala begiratze hutsetik; barrendik darien *hotsa* entzun beharrik gabe, noraezeko hegaladi arin pasakorretan galdua.

Bestalde, barren barrenko ikara uxatzeko, sarritan hizketa zakarraz nola baliatzen garen azaltzen dizu ondoko pasarte korapildu honek. Manex eta Larraun, segapustuan hastekotan direla, barne ikaraz daude, jendearen marmar artean barrenak are urduriago dituztela:

*Amazkar gora ziak jendea ordua baiño len gainez
Gora deraman itz marmaria, bera doanean nekez.*
*Manex ta Larraun erlama antzera, bereiz dutela mulkoa
esan-bearrik ez erritarrak deramala aundiagoa. (barne dardara)
Aldapa-nekez baiño, bildurrez bostek ikara zangoa.
Bildurra aizatu naiez, bapatek ozenago dit mintzoa
«Gogoan diat artzai bildurti, gau illun zitzaidanean,
biotz-pilpira suma nai ezta, kanta nula mingainean».
Ala barneko bildurra askori aldatzen ezpain-ertzean.
Itzen bildurrak ez dik, bildurra gezur biurtzen barnean.*

Ezkontz elizkizunetan, maitasun zirrarak kasik ahotsik gabe utzia due-larik, hara zeinen leun ematen dion Mikeli Garazik baietza. Aurrena ozen ordea, Mikelek:

*«Bai» dio dardararen otsa bezain ozen (...)
Garazigana apeza galdera berean; (...)
«baietz» bipil, ez orde mintzo berberean
Neguan ezkillu ala elurra denean
edota ardi-txintxina irastor-tartean.*

Hori da «neskatx ahotsaren fina» adierazteko poetak erabili duen edertasun oparoa, hori! Mendiko hotsetan ezezen, itsasokoetan ere etzen hain motz gelditu adimen zorrotzeko poeta gurea. Badatoz arraunlariak elkarren leihan, eta jendeak zalapartaka ekin die :

*Aize-burrumbak jo ditun gisan, batean dute ein irrintzi.
Turutak asi zalapartaka, mutillak il edo bizi;
ez eun iztarik, berreun zakurrek basoan ainbat karraisi.*
*Mutillen bati, lenik ez bazun bear aiña zorabio,
marru-mintxo ark belarrietan furrunda gaizto dagio
Ez da agertuko bukatu arte. Patroiak gogor dakio,
soiñu au gortuz, oiu ta mintza, erabat garai artio.*
*Itsaso aundik itzaliz artu oi du urubi aundiena;
ezin itzali bertan bertako giza mintzorik aulena
(...)
ez dardaritzen legorra ainbat, emen zuten larripena.(...)
aurrerakoan belarrietan erditzen dute nekea
Nugara artean gero larrigo, arnasa laguntzaillea.(...)
Getari ixillak lau aldetara zabali du deadarra.
Amabaost arraun-ukaldiz gero sartu zaie zarauztarra.*

Hurrena Amona xaharraren herioa dator, hots askoz ere leunagoz:

*Arnasik ote, urbil zaizkio; ote biotz pilpira geldia
Gero, begi itxiz, esnai ta ametsen tarteko dan marmaria.*

Huxkeria arrunta dirudi hor esaten denak, baina ongi erreparatuz gero, Orixeren gogoan bide zebilen gauza batez ohar gintezke. Bizitzaren eta heriotzaren arteko mugak bereizteko erabiltzen diren tresnak erabili zituen Orixek bere bizi guzian belarrian eta gogoan. Irakur ezazu berriz goiko pasartea. Hantxe daukazu dena esanik. Heriotza eskutik zuela ibili zen Orixe munduko bizitzan, eta hil hagineko neurri berberekin neurtua zizun bizitzaren funtsa, aurren aurreneko egunetik: *begiak itxi, eta entzun, bere arnasa, edo biotz pilpira, edo esnai ta ametsen tarteko marmaria, gero loa*. Bere poema guzietan hitz horiek berberak errepikatzen ditu behin eta berri: *begiak itxiz, isilean, bihotz pilpira entzun, arnasestua aditu, erdi loxorroko marmaria, eta loak hartu ondotik ere belarria erne*. Kasualidadea ote da, haren poesia, dena hain batera etorri izana? Nik uste ezetz. Are gutxiago, poeta bera, behin eta berri, ilunbe larriko bakar isilean, bere arnasa eta bihotz pilpira bazik entzuten ez zituela, herio eske aritua zela jakinik.

Alderdi honek, harako **T. S. Elioten** pasarte hura dakar gogora. Euskaraz honela genuke alde aldera: *«izatearen edozein ingurubiletan dela ere, heriotzeko zoriaren eragipean ihardun behar du gizonaren grinak»*. Inork bada, Orixek eraman zuen halako bizia. Heriotzeko ispilu aurrean bere burua jarriz, eman baitzion bere izateari zentzu eta indar. Belarria bitarteko. Hala bereizten baitzituen garbienik bizitzaren eta heriotzaren arteko muga zorrotzak. Hori esanik, segi dezagun Amona nola hiltzen den entzuten. Entzuten bai, entzuten!

*Azkenik: «oiñik ez dut sumatzen» anima zun gora asia.
Elizakoak emana zan, ta erne zegoan belarriz.
Alako batez dardaraldi bat; Jesus emanik azken itz,
aurpegia alai gelditi zitzaion, bi ezpainetan par-murritz.*

Lehen loari buruz esanaz gainera, orain honako hau eranstea ez letorke gaizki. Beste guziari entzungor, hirugarren belarriz Jainkoa bakarrik xorgor entzunez, anima indartzeko bezela hartzen zizun Orixek loaldi bakoitza. Ba, Amona halaxe hil da, inguruari entzungor eginez, oraindik erne zegoen (hirugarren) belarriz. Jainkoarekin ari zen hizketan. Horregatik atera zaio larritasun dardaraz *Jesus!* azken hitza, hil eta harekin bat egitean sekulako zirrara sentitu duelako.

Haur jaioberria, hilabete batzuk pasa arte, belarriz gidatzen da, batipat entzumenak bideratzen du bere inguru zibilizatura; ikusten hasi arte. Hala berean, mundu honetatik bestera abieran den amona xahar ia itsutuxeak: belarriz agurtzen du bizia. Beraz, belarriz sartzen gara bizitzara, eta belarriz agurtzen dugu bizitza. Hauxe zen Orixek beti gogoan erabili zuen oinarri filosofikoa. Honetxek eragin zuen belarriaz hainbeste gogapen zuhur egite-ra.

Euskaldunak poema alde batera utzi, eta atzera beste poema batzutara paseaz, azter ditzagun honekin ikustekorik baluketen pasarte batzuk. Hara zer aitortzen duen *Indar-Iturri* poeman, ilunbe larrian herio eske eta guzi ibilia zen poetak :

*Atsedean, atsedean! Otoitza ta loa nere adiskide aundienak. Ala
Sutatik etxera dator gudaria, ixiltasuneko loa nai duala.
Lo betea nizun Jaunaren grazia, itsasten zan bizkor nere betazala.*

*Sumatzen bainendun pake ixillean neregan kokatuz Jaunaren egala.
Otoitza ta loa, nere bi makulu, gudu larri artan, bai goxo zirala!
Aren aurrean ni, **arnasa debeku**, ezbear artatik jare nindezala.
Eriotza galde, agundu, zin egiñ, etzezala kasu zein nintzan zitala.*

Gauza bera, *Getsemani* poemaren hirugarren kantuan ere, *lo zeuden naigabez* izenekoa, honela bukatzen du:

*Erio aiñako miña ez dut ikasi zer dan;
Eriotza , bai, eskatu biotz osoz bostetan.
(...)
Neke auek arintzeko eman zenidan loa.
Naigabe artaz azturik, egin nizun goxoa.*

Udazkenari eskaini zion poemari ere, honelaxe ematen dio azkena:

*Gizonak il eta dadukan zuloa,
luzeenik dala ere, ez da betikoa;
Eriotza zer da? – «Jainkozko loa».*

Noski baietz. Bere siniskera egokiro eraikia zeukan Orixek. Ez dio haren eraikuntza hain buru argiz egindakoari harri bakar batek ere huts egiten. Bizi zela lotan egiten zuen jainkoarekin bat; nolabait esan, lotan bihurtzen zen, gorputzaren zentzuen gaintetik, anima huts. Beraz, heriotzak derrior izan behar *jainkozko loa* . Aldez aurretik, balizkamendu hartan oinarritua baitzuen bizitzako loaldien zentzua. Nola ez ba hartara bildu, hasieratik helburu hura irmoki finkatua izanik.

Honarako apropos bereizi dudan pasarte honetan, horren kontraesana aurkitu du Joxe Azurmendik *Betiera* izeneko poeman. Hala iduri arren, ez du ordea, batere kontraesanik:

*Betieran sarturik arkitzen ote naiz?
Ez; nere mugarekin egin dut topo maiz.
Nere muga loa da: ori dut gaitzen gaitz.
Orregatik goizetan jekitzen ni garaiz.*

Alde batetik, gaitzak, ezinak, nekeak, eramaten zuen lotara Orixek. Horra hor *gaitzen gaitzak* . Baina, beste aldetik, *loak* berak indartzen zuen, isileko sorgin soinuak, eta *muga* zail horretan sumatu uste zuen jainkoa hurbilenik. Ez dago inolako kontraesanik. Aitortzen baitio *Quiton arrebari* ere, bere ezaldietatik onik ateratzeko ez duela *loa* bezalako sendagarririk.

Joxe Mari Aranalde ilobak beste hainbeste aitortzen du, oraindik argitara gaba duen poema baten azalpena egitean. Harritzeko ere bada ondoko *Santa Luzia* hori. Nik uste, *eguna motza eta gaua luzia* delako hura gogora ekartzeko apropos aukeratua duela, loaren luze sakona adierazi nahiz edo:

*Santa Lutzi gauetz lo bete nengola,
betan atzarri naiz kolkoan ikara
goxoz, buruz erne, JESUS? jalki zaida.
Laister naiz biurtu lengo lo berera.*

Gogora zaitetz, arestitxoan Amonak esandako azken *Jesus!* hartaz. Aurreraxeago berriz, honela dio iloba Aranaldek: «...banekin, gabaz otoitzari ekiten ziola esnatu orduko ta bigarren *loaldia* zapuztu bezela egiten zula». Aurrez esana dugunez, Jainkoarekiko otoitz isila hautsi uste zuelakoan,

seguraski *zapuztu* ere, eta lotako otoitz isil hura osotara ez galtzeagatik ekiten bide zion berehalakoan otoitzari.

Bistan da Orixe haurtzaro sendoko gizona zela. Gorriak ikusia. Sekulan inork maitatu ez zuelako uste ilunetan, beti kaskagor eta sentibera bizia. Baten batek mutikotan izengoitiz »*gaitxetxa*» deitu izana. Malko lehorreko gizona. Bere bizitzako tragedia latza, barren barrendik, bere bakar isilean eramandakoa. Idazle haundi guzien gisan, gero bere sinismen eta gogomen zailduen galbaian pasako zuen *haurtzaro sendoa* besterik ez baitu haren literatura oparoak ere. Ume umetan ere, zahartzaroko *soinu sorgor* horren pare ziteken *haur kanten leloak* bizkortzen zuen ahulaldietatik:

*Txikidanik izan nintzan zori gaitzaren lagun
etxe artan egunero ezbearra begenun
Zure minak gurekiekin gauez oroi genitun
Agurtza esan ondoan kantak arintzen gintun.
Negar aspertua baino obe genun kantua.*

Oraindik pasarte asko gelditzen zaizkigu aipatzeko, eta xede hori hartu dugunez, luzapenak luzapen, segi dezagun belarriz moxkortzen:

*Muskillen gainetik urretxindor batek
oles eta oles, moxkorrik diardu.
Kartusian ixil gau loaren mende:
gauez zuten xinta otoitz eta Salmu.
Aiekin txandaka zaitzala goretsi,
ez baitu txori ark gauez loa galdu.
Eguratsez, ergiz, begia eta kolko
aserik, ixilla dut nik nere kantu.*

(Sinismen garbi)

Hurrengo poema honek ere, oso nere gogokoa ez izanarren, badu belarri hotsik franko:

*Sasi eta arkaitz baizik ez ager, ez eize-marrurik.
Ez da entzuten oian itsuko ostoen soinurik.
Bi biok gaude otoitz ixillean, ez da lekukorik.*

(Baru mendian)

Hurrengo honetan ere halatsu. Kanpoko hots eder guziak alde batera utzi, eta oraindik musika ederraregoaren bila joko du poetak, barne musika isilaren bila:

*Aretxeriarri marrumaz asi da beia
ezkila orde, nere Mezarako deia.
(....)
Eliz ixilak gogora behar banitu
au bezain ixil ez dut nehon aurkitu. (Kartusikoa)
Ixiltasunik ez nun osorik aditu,
ixiltasunak bere zurmurrrak ba ditu.
(...)
Agur oraikoz bego zuen abarrotsa
txorien txinta, iturrien pipil-otsa*

*oian itsuen muskil orrien asotsa,
itsasoaren marmari nahiz ostotsa.
(...)
Bego latiña, bego mintzai oro ixil
Jinkoarekin kuku neregan nadin bil.
(...)
Ixila Meza, obe dut ixilik egon;
biotzez biotz Jinko onarekin nagon.
Ez dut zurmurrik entzun ere nai nehon.
Otoitza goxo egiten da Berraondon.*

(Berraondoko meza)

Inon baino hobeki, ondoko poema honetan ikusten da Orixek belarriari ematen dion lehentasuna. Begia aspertu egiten zaio, baina belarria sekula ez. Horrez gainera, poema honetan harrigarria da *entzumenarekin* eta *bertierarekin* egiten duen parekotasuna. Orixeren gogoan, *adimena*, etengabe belarrian jotzen duen *soinu xorgorra*, nolabait esan, munduko izate guziaren *mungimendu erimikoa* eta *denbora* gauza beratsua bide ziren. Halare, nere uste zarpail guziak baino hobe duzu berak hain dotore esanak ahogozatzea:

*Asperten ez omen da ikusiz begia
Nere au aspertzeko da itsas-egia
Uin-otsak lenago dit artzen belarria.
Ez aspertu, ez ase, ark nauka guzia.
Antxetak xortzen naute itzul inguruka;
lertzen dan apar arek axalean nauka.
begiei nai dutena errez diet uka
dunba sor artan nauzu barrenean kuka.*

Leitu berri duzun pasarte zoragarri horren ondotik, hona non duzun etengabeko belarri hots hori, poetak betierari uztartua:

*Ots ori bedidanik etengabe bera?
Iñolaz nik bezela badu asiera.
Ez du tarterik –ontan biok berdin gera–.
Iduriratzen zail dut bion bukaera.
Nik ere badut ots bat belarrian beti;
ots ori entzuteko sarri naiz goseti.
Or arkitzen naiz nerau ots denen gainñeti,
aldarteak aldarte, barnean barneti.*

Hona hemen, greziarren tankerara landua, poema oso buruzko baten pasartea, oharkabean pasa ez dakizun nik neronek beltzez nabarmendu dizudana:

*Nere biotz pilpirak berekin etena;
betirautea ez da neurtu daitekena;
ots etengabe ortan belarri barrena
dut aren irudirik jator jatorrena.*

Ez al dirudi Orixeren poema honetatik sortua, honako Eduardo Gil Beraren gogakizun honek? : *Eternitatea ez da luze eta ez da denboraz eginikako zerbait ere. Gizakia eternidadearen berria galdu duen animalia baita, eternidadea zer den ez dakien izaki bakarra. Ohartzea denbora nola sumatzen duen zuhaitz batek, animali batek, lagun distraitu batek, eternita-*

tetik askoz ere hurbuilago diren gauzak dira, denbora zati baten iduria egitea baino. Ene iduriko eternidadeak luze irauten duela aditzera ematen duten konparantzek haren ideiakandik urrundu egiten gaituzte. Ez, ez duzu entenitzen horren esanahia? Ez?. Utz dezagun orduan filosofia, eta bihur gaitezen Orixeren animako belarri xulora:

*Ari naiz ta banago entzun eta entzun
ots orrek etengabe jirauten ote dun.
Nerau neronengandik atertu nai ez nun;
baña ba dator loa, bekañetan astun.*

*Ez da balarri otsa. Zenbat leunago!
Ixiltasun osoa zaio urbilago.
Batetikan bestera bide luze dago;
Baña sumatzen dala nolabaite nago.*

*Ixil ontan sarturik, uneka bederen,
-dena batean baita- Jauna daukat emen
Dezadan beintzat atzi, uneka naiz eten.
Gero dut atergabe beti jastaturen.*

(Betiera)

Elizan J. S. Bach entzuten ari delarik ere, oharkizun bera egiten du:

*Aldia zer danik galdu dut aria.
oparo dut artzen sineste guria
Ordu bete, gozo, joanik abia,
neretzat an dago orratza geldia.
betiraundearen irudi bizia.*

Gainera, *Betieran* azaltzen dituen baino are gogakizun bai erdifilologiko bai erdifilosofiko sakonagoak azaltzen ditu *Miramar 1954* poeman. Azal dezagun poema, labur beharrez bertso lerroak hautsi eta denak elkarren segidan jarritz. Beltzez nabarmendutako hitzak poetak berak eginak dira:

«*Betieran* sartzten ote naiz asia tarteka bederen? Ez muga, ez aldi, ez tarte lasterrik; *betaren* barnean *beti* dan *Arekin bete* nago geldi. **BAT.** Ala zukurra eizez dabillala, isats eraginka, ikara belarri; baiñan oillagorra suma dula, kuzkur, batera biltzen tu, lotuz gorputzari. *Buru ta biotza alde banatara* doazkit egunez, *bi liran iduri; gauaren mendean bat biurtzen* dira ezin bakanduaz: orduan naiz bat-bat ni. *Gauetzko pakean ezin duenak otoitza xortzeke, zer ote daki? Gauak? Ixillak? Zerk ote nauka kuku? Indar oro batuz zer ote naiz ari? Egonean jardun, jardunean egon? eragiñik gabe norbaitek naragi. BETA, Jainkoaren betiren antzera noiz asi, noiz buka, ezer ez dit neri. Tarte onek ez du laisterrik; egonak aztuazi dit noiz otoitza nun asi. Ari naiz, banago. Betaren pakean ez axolik nago otoitza noiz asi.*

Xaguxar bat egan bekoki gainean... lurrean nagola dioket igerri. Murgiltzen naiz berriz beta paketsuan, jardunean egon, egonean ari. Katu elur-margo, marrakaz isatsa legunduz, atea zaiodan zabali, eizetik irten da; atzarriz berriro, lurrean nagola dioket igerri. Arraiak uraren axalean zenbait mamu atzemanka eiten baitu jauzi ura galdu gabe? Alaxe berriro arnasa galtzeke murgillik naiz geldi. BETE. Utsarterik aldarterik gabe ni bete; neronez ez xortu, ez antzi. Baiñan utsa naiz ni; Jainkoak nau bete. Ark

ez baitu bazterrik, nik ez dut bazterrik; ez baita mugitzen, enaiz ni mugitzen; oro naiz Arekin, oro dut nerekin. Miramar eipea! gauzez bitan goxo. Agur! baiñan emen barne zaitut beti. Noranai noala nerekin zaramat, ez baita neretzat utsik, ez tarterik. Gizaingeru diran Muysbondt-arrak oro emen barne ontan nigaz deramatzit. **BETI**. Sar banendi betian zatika... oro bat dirade oso eta zati. Anima betian bizi zait; gorputzak badu, zorigaitzez, aldarteen berri. Zeru goxo onek lurreko minkaitza ez galtzen! Erria lur ontan atzerri! Bizi nadin, Jauna, naizeño, Zurekin, Zurekin biurtuz **BAT**, **BETE** ta **BETI**».

Poema honek, arrotz eta lehor antza dirudi. Ez da Nikolasen usario-ko moldera landua. Halare, zer pentsatua ematen du azkeneko **BAT**, **BETE**, **BETI** horrek. Baita filologi edo fonologi hutsaren ikuspegitik erakusten duen progresio harrigarriagatik ere: $B+T+A$, $B+T+E$, $B+T+I$. Hiru hitzek kontsonante berak dituzte, hurrenez hurren, *a*, *e*, *i*, bokalez osatuak. Ez alda harrigarri eta guzi egiten lokera hori? Zer esanik ez bezerriz, antzekotasun ortografiko horri hiru hitzen antzekotasun semantiko nabaria eranstun badiogu. Izanez ere, batasunak betetasuna baitirudi, eta betetasunak betitasuna. Honetan euskararen muinetara ere jo zuen Orixek. Nik halare, poema horretako beste pasarte batzuk nahi nituzke nabarmendu:

*Egonean jardun, jardunean egon?
Eraginik gabe norbaitek naragi.
Jardunean egon, egonean ari.*

Poetaren gogoan dabilen etengabeko *aritze* hortaz, ez al gara belarriz jabetzen begiz baino askoz ere barrenago? Nik uste baietz. Begiz atzeman ezin ditugun mila *aritze*, belarriz geureganatzen baititugu. Hortaz, Orixeren gogamenean eta sinismenean berebiziko inportantzia zuelakoan nago taigabeko *aritze* horrek, amaigabeko *errimo* horrek. Nere ustez, horixe zizun *betiera*, taigabeko *errimo* ixilgorde hori, belarri ernez baizik atzematen ez den hori. Eta *aritze* horrek egiten bide zuen haren ustez, izadi guzia *bat*, *bete*, *beti*. Jakinaren gainean edo ezjakinean, grina horren adierazle dela uste dut Nikolasek *ari* aditzari eman zion trataera ugari bezain zoragarria ere. Hara nola sinalatu zigun Joxe Azurmendik «*Zer dugu Orixeren alde*» liburuko 318-19 orrian:

«*Baina bere gustoko pelota hau zuen nonbait: ari(tu) aditza. Bai sake dotoreak atera ere... Hitzak eta esaerak hautatzen ezezik, Orixek bazekien asmatzen eta kreatzen ere. Ez dakit gaur ari hain gustora eta hain ederki erabiltzen duen askorik ote dagoen:*

....otza ari zun; bizimodu lasaia ari zuten aiek; jende taldea aundituz ari zan ibaia bezala; gerra-legez ariko zituala; Santa Kruzen kontra sutan ari zala; besteak beren buruz ari nai;

Hauek eta beste mordoak, *Santa Kruz Apaiza* liburuko adibideak jartzen ditu Azurmendi zegamarrak ondoren. Baina, nik nahi dudana adierazteko, Orixek bere baitan ere *ari* egiten zela adierazteko alegia, horiek bezain adierazgarriak iduritzen zaizkit, honako pasarte hauek:

Poeta elizan dago J. S. Bachen Fuga entzun zai, bere batan bildua:

*Ixil organua, ixil ezkillu,
ixilik ari naiz ixil orren billa.*

Zenbaitek bere olerkigintza mistikoaren gailurrean jarria dion *Getsemani* poeman ere, *Eseri emen* delako zazpigarren kantuan, badu antzeko pasarte mabarmenik:

*Ari nintzan? Xor nindagon? Neronek ez nekian.
Musika bat ezin kenduz nedukan belarrian.*

Honetan berriz, neska mutil maiteminduak elkarri begira daude:

Zeinek jakin Maitasun zenbat ari dan aien barruan.

Horiek baino *aritze* ederragorik, nekez aurkituko duzu Orixegan. Jainkoa bera, *bere baitan ari zitzaion* zerbait bezala jotzen zuen Uitziko poetak. Behin eta berriz, esaten baitu «*Jainkoaren billa*» liburuan ere, *kietisten* edo *alfer-egonzaleen* aldeko ez dela. Pentsakera horrek, nere ustez, bete beteko eragina du Nikolasenean, etengabe ageri den *aritze kontu* horri dagokionean. Hain zuzen ere, loxorrotzean, *bere baitan ari zela* erdisumatzen zuen *barnesoinu goxo* hura, *jainkozko aritze taigabe* horren sinaletzat baitzeukan.

Charles de Gaulle jeneral frantses ezagunak, hala omen dio bere «*Gerrako oroitzapenak*» liburuan, hala leitzen nuen behintzat lehengo batez Juan Thalamas irundarraren «*El sentimiento cosmovital en las poesias de Lizardi*» liburukian: «*biziak atergabeko burruka ari du, eta sekulan ez du galtzen*». Gauza beratsua esan daiteke Orixek zuen mundu ikuskeraz ere.

Honako Lizardiren pasarte zoragarri honetan ere *aritze ixil* honen oihartzunik suma liteke. Baluke gainera, Orixeren baitako *maitasun aritze xuri* horren antzik aski. Lizardi barrentxuri sentibera, mendigainetik beheko sagasti zokora begira dago, lore zuritan dagoen sagarrondo sailari:

Sagasti berri, sagasti zuri,
inguma-atsegintokia iduri,
elurte arian geldia!
Ezin urtuzko txingor ugari
azpi gizenan duk nabari
zelai-bitxizko lorea.....

Propio beltzez markatu dudan pasarte horri, Orixek *geldian aritze* hari zion grinaren kutsua hartzen diot nik. Bi poetak elkarrekin hitzeginak ziren noizbait, seguraski, *geldian aritze* horrek zukeen esanahi sakonari buruz.

Bistan da beraz, *aritze taigabe* horrek baduela lotura estua Orixeren *belarri soinu atergabe* horrekin ere. Hori ezin zizun inolatan ere isilean gorde poetak. Jainkoa bera entzuten baitzuen hortan. Orixe zenarekin, nola bada mintzo, Jainko beraren mintzoa bazter utzurik? Munduko izate guzia josten zuen *mintzo ixil* hori estalian utziz? Ez ote zegon arrunt sinistua Orixe, ezin ziola jainkozko *belarrisoinu* hark bestek lagundu edergintzan? Edo bestela galde eginez. Ez ote zegon erabat etsia, jainkozko *belarrisoinu* hartatik zetorrela mintzoaren eder guzia? Munduko izatearen eta biziaren indar guzia. Nere iduriko, kristau sinisle huts eta itsu izatez landa ere, bazuen arrazoirik aski, hala uste izateko. Baietz egingo nuke nik: jainkozko

musika horren, *etengabeko belarri soinu xorgor* horren eraginpean edertzen zizula Orixek mintzoa beti. Baina, jainkozko ezik, munduko izate guziari zerion *bizimintzo ixilla* ere bazen harentzat, beti belarrira zuen *soiñu xorgor* hura.

Iruzkinetan asko luzatu gabe, entzun dezagun *Isiltasuna* poema bera:

*Eguzkiarekin batera, txoria txintaz atera.
Baina oberik entzuteko irtengo naiz oianera
Nere baratzak ez dun soinua gogo dut entzun.
Txioa baino sorrago dala, arek ukitzen nau legun.
Ua alakorik belarri onek ezin arkitu du iñun.
Erlerik ez dut ikusten, zurrumurrua sumatzen
Urruti soinu sorgarria da belarri auen asean.
Entzuten ari naizena ez da furrunda ozena.
Beroak berak moteltzen ditu egalak eta eztena.*

Ibilaldia egin ondoren, eguzki dindak gogor jotzen duen garaian, itzal-pera sartzen da poeta, kanpoan ikusitakoaz gogoeta egitera:

*Basoan suma ditudanetan gauza bat neri gogora:
erle-soiñua baino meiago dan marmari zorakorra.*
(Ixil-aurre)

Gero betetasun osoko *ixil-aldia* hasten da, poemaren ardatza, hiru ataletan *erdikoa*:

*Gauzez ere zur da betik, lo-zorroaren menpetik;
erdi-lo dala entzun gogo du xurrumurru meietatik;
beti liraukan otoi-soñua sortu ledion barnetik.
Geroan intziri miña, iñolaz ase eziña
ordu luzetan atertu gabe nik ordeztu bestek egiña
Begi-txuku, arnas bakan, arri dagonaren gisan
entzun aski dut intziri miñ au barnean zer ari zaidan.
Otoitz egiten sekulan baino orain obekiago dakit
iñork entzuten ez dun zotiña aldian aldian darit.*
(Ixil-aldi)

Orixek, loaldi isilean munduaren mintzo xorgor jainkotua aditzen segitzen zuen bitartean bizkortzen zen beti. Eta hartaz arrunt sinistua zegoelako edo ez, loti amorratua zen. Goizean goiz jeiki, baina, egunero bazkalondoan bere kuluskaldia botako zizun:

*Ixilaldiak otoitzarekin berritua dit indarra
Alegingo dut ote dezadan txuka besteren negarra.*
(Ixil-ondo)

Azter dezagun orain, «*Barne muinetan*» poema. Hona Orixeren pasarterik biribilenetakoak, mundu zabaleko poesiaren antologia zuhur batean harro asko leudekenak.

*Itzai bat bidez doa, gurdia idiei lotuz. Aurretik
itzulinguruz, iges, bazterka, txakurra isatsa iasorik
Itzala ere josta lagun du –oroi ta iduri ala nik-
Auek adin bat okertu gabe, itzai, adimena atzetik.*

*Gurdiak negar besterik ez du. Ontan... sinestargi dator
Jainkoagana zuzen garamaz; itsu da, bainan entzukur;
bidea bat da; ez loi, ez zulo, oiartzun dun arri gogor.*

Fedea sartu zizun, batipat belarriak idekiz.

Segi dezagun ordea, goiko *harri hots gogor* horren oihartzun zoragarria entzuten. Hor ageri da ederki, Orixeren barrena etzela batere belaxka; bitzta tragiko batek zaildua baizik; eta fedearen *harribizia* belarritik zetorkiola batipat, adimena *itzai* zuela:

*Bidea nai dit agertu Adimenek (...) Onek guraso du Entzumena.
Sinismenek egiten du bide zuzen
arbide erdian bere oin-otsak diotelarik laguntzen.
Oni natzaio lotuko; arbide hau dugu Kristo.
Ortatik oin bat bazter orduko, sumatzen dut ots motela.
Arbide orren ertzetan daude, bi amildegi berela.
Bide orretan gal bildurrik ez, arri bizia dut lagun.
Zuk nadukazu beti oleska Jainkoaren lagun.*

Sinismena eta Adimena, *bi burni mutur elkarri beti lotuak* ageri dira Orixeren gogoan. Lurreko *arriots* biziak, oihartzun zorrotzak, lotzen du Orixeren belarria zeruko hotsera, ez dabilkizu hutsaren lilura hegaxurian galdua, Lizardi askotan bezala:

*Zerorren Itza duzu beti-itz orretatik;
munduari zatzaio mintzo gizondurik.
Ilunbetan naiz itsu, guraso-mintzorik,
ezagun bage ez dago belarri duenik.
Ezagutzen zaitugu, Aita, mintzo orretan
Isil, itz eder orren entzule gaitean.
Aitaren itz bakarra, isilik esana:
Isilik entzutea dut dagokidana.*

Kontutan hartzekoa dirudi, ahozko euskal usuario zaharrarekin zer ikuririk baluken pasarte honek ere. Jaunaren hitza entzuteak dizu indar:

*Ez duzu deus idatzi... Bein bai.. ondarrean
Barratu zan; berriro nork bil lezakean!
«Entzun oni» zerutik argi-odeiean
mintzo ziran semeaz, Taboroko gainean.
Indar, entzunak orde; Elizara zintzo:
kantuan, itzaldian bizigo da mintzo.
Arnas Gurena an dugu, itzak gantzutzeko.
Itz-argailu bezela –bein zuk bialdurik-
mintzo ura berritzen dula nioke nik.
Ez da berbera, baina bai antz antzekorik
Etzait au entzuteko galtzen egarririk.*

Burubihotzez ikasitako hitza dizu betiere sinismenaren edo kulturaren oinarri. Hitz hori entzuteko jarrera bihozkor *xumean* adi jartzen ez bazara, zure giza oinarriak klak egina luke. Era honetan, *Euskaldunak* poema nagusian ere, nonahi azaltzen ditu ahoz belarrirako jakite horren aldeko esanak. «Legeren batek alaxe dio: zar guzien mingainean. Sendabide au ikasia zun, aiataren aitona gandik. Euskaldun ele ederrak urtero berrituz, agoz ago omenka gerora bialduz». Baina, segi dezagun *Barne muinetako* mintzoan:

*Buru-has ta beregan ari da apaiz jauna
utsegin bage esaten, buruz «berri Ona»
An inon baino obeki esanak du muina.*

*Ikasi ez ikasi, oro gara berdin.
Berri ori ikasteko, xume bear egin.
Oinetan nadukazu itz danak ikusmin:
isil entzun ditzadan Martaren aizpakin.*

Hona nola ematen dion azkena *Bedeinka Dezagun Aita* poemari ere, «*musikaren joan*» esamolde zoragarri hori erabiliz. Hots hutsa duzu, pasarte dena:

*Mintzoak nasten banau, isilik nagoan
Uso zuri urruma dudala gogoan.
Arnas agor au adiz, sar ni barnagoan
Zure deadar oien musikaren joan.*

Baina Orixen entzuten zuen musika hori, ez da biguin belaxka, harri soinuaren dardarra bezain lakar eta bizi *ari* da beti. Hortaz ohartzeko jarri dizkizut goiko hiru hitz horiek beltzez nabarmenduak. Bere arnasaren musika ere entzun egiten zizun Orixek. Hartan adituko baitzuen, agian, eta bereganatuko, mundu osoaren mintzo ixil jainkotua ere.

Ondoren, hara nola hasten duen *Lurreko Irutasunari* poema ere, Itun Berriak adierazten duen *isilaren* eta *mintzoaren* arteko hutsaldiaz gogoeta eginez:

*Esanera zeukaten! Zutaz beste murtik
Etzuten or idatzi Lau Ebanjelarik.
Ainbat urtez ez ote zenun egin itzik
Gure biotzak isil ausnar zezakenik.
An zeunden... en biotzak itzez gantzutzen.*

Hor goian, *en biotzak*, dioenean, *haien*, *ebanjelarien* bihotzak, esan nahi du. Segidan, nola ez ba, Jaunaren hitzaren gainean ari delarik, askotan ohi duen bezala, belarria xorroxtu nahi dizu, begia erdi itxiz:

*Ez bide zan itz-mitzik Nazareth etxean;
Aita-amek bizi ziran isil bakarrean,
ITZA gizon egin begien aurrean;
beste ele oro gainez ziran ezpainetan.
«Besteren esanera» itz ok irakurriz,
-entzun al nitza Jainkoz, ez soil ikus begiz-
sarkorrigo zaizkidan mintzo biur bediz,
ausnar ditzadan luze, barnen duten egiz.
Ozen esaten ditut neunek entzuteko.*

Beraz, poeta on askok bezala, hitzak belarrian lantzea izaten zuen gogoko Orixek. Belarrian goxatu, bihotzean pasa, eta gogoan ausnartu arte, ez bide zen jabetzen hitzaz, zela izadiarena, zela gizadiarena edo zela jainkoarena:

*Idatzitik mintzora zenbat osin dagoz!
Zer daki begik soinuz, zer belarrik margoz?
Burutik itza mihira, zubi izkutu batez*

*dator; agotik ara jazten eguratsez;
belarri ateetan, erazten da tankez,
noizbait gogora dala mila biurgunez.*

*Irudi bat buruan; bera mingainean?
bera sartzen ote da besteren barnean?
Gezurretan, naiz egi bila aleginean,
zenbat aldiz oi dugu, utsegin bidean.*

*Zure mintzo ori bakar, Egi zinezkoa
ez da gauzen irudi; or zatoz osoa.
Itz, Jainko; orrek jotzen du zuzenik gogoa
Mintza zakit Zeronez, entzutera noa.*

Hor ikusten da ederki. Orixerentzako, hitza ez zen, gauzen, gertaeren, ordezeko etiketa hutsa, gauzei barren barrendik eta berez darien musika baizik. Hitzari, bere iturrian bizitua eta sentitua izateak ematen dio bere zentzua. Hori kontuan izanik, ez da harritzeko, Orixek bere bizi guzia zinezko euskal mintzo bila eman izatea:

*Barnean irauliaz, itza atxeki zenun
Itz onek adimena, argitu baitzizun.*

Mariari esaten dio hori Orixek, baina bere buruari esana dirudi. Egin ere, besterik egin ahal zuen ba? Euskal hitzak eta esalegeak, barnean irauli eta bihurrikatuz, bere *adimena* zorroztea besterik? Halare, ez zizun nolana hiko hizketa egin nahi, muin muineko hizketa zorrotza baizik, mihia gozo eta zuhur erabiliz:

*Isil etxe onetan, ikas zak isiltzen
mingainez beintzat; gogoz ez al aiz atertzen.
Mingain! gorputz ta anima oso dituk galtzen!
ieziz gero, ordea, oso tuk ezitzen.*

*Gizonik ez maingaina eziko duenik.
On guzizkoa da, artan ez badu utseginik.
Burruka latza ari dut, beingoz ezi nairik.*

Ondotik, badirudi bere burua, betiko txorakeria hartan erortzeko bildur balitz bezela, artaldeko ardi sarkoiarekin konparatzen duela, analogia zoragarria eginez:

*Larrean pake dabil artalde otzana
ardi sarkoiak urra du esi bakana.
Marrakotsa da; atzetik doa artalde dana.
Barnean bila nairik larrean ez zana.*

Debekuan sartzeko grina itsuak sorrarazi dion *marrakots lakarra* dela medio sarrazi du ardi alorkoiak artalde guzia pekatuan.

*Mihitik ala galtzen, gorputz ta gogoa
Isil ta bakartzean baretzen osoa.
Isil nadin, nagoan nerekin paketan,
Beti-itz isil orrekin jardun gozoetan
Ez zadan itz garratzik mingain ta lumetan
Jaun au ezti daukadan nik barne muinetan.*

Inguruko artalde ergelak sortzen duela dirudi Orixe sarkoiaren marra-

kotsa, eta artaldeari beti marrakaz aritzeaz aspertua bezala, bere baitara biltzen da, bere barne mintzo gozo isila entzutera:

Bil nadin barnera, **mintzo** bat entzuki
argi bat izetuz, biotza landuki.
Leze barne huntan zer dut ikusgarri?
 Bost aldiz nerera mintzo ozenak **jo du!**
 ni berriz **etxetik urrun** nabilazu!
 Ate joka norbait. Erantzuna.. «**Bego**»
 Iparra geldi da, legun dator ego
 hegatsetan dakar maitetasun bero
 Haren **mintzoari** muzinik nork egin?
 Bide zoroak utz, **etxera sar** nadin.

Bere baitara sartu zaizu poeta, kanpoko zoroari bizkar emanik. Nere ustez, goiko pasarte horrek herri honen fedegiro jainkozkoa eta politikoa biak batera adierazten ditu. Gogora zaitez **ari** aditzaz esandakoaz:

Nigan **ari** duzu, Aitak sor semea
 ta alkar maitatuki Biongandik duzu
 Has Gurena. Jesus Nire betea!

Zer da Orixeren barren isilean *ari* den hori? Zer da *Has Guren* hori? Biziaren muin muinean ari den, munduko izate guziari eragiten dion *mintzo isila* inondik ere. Hori ez beste *mintxo ergel* guziak ez dio deustako balio:

Ez **edozein mintzori** ta argiri jaramon
 Emen daukat oro; etxe barnean nagon.

Orixeren sinismena ezikan, bere nortasun bizia ere azaltzen lukela uste dut pasarte mistiko horrek. Lurrari oinak kendu gabe, sinisten zuen horietako baitzen Orixek, eta lurrean entzundako *mintzoa* baizik ez zuen, atzera, zeruan oihartzun egin ondoren, bere baitaratzen zitzaiona.

Belarrira datorkion *bizimintzoa* mailakatu egiten zuen Orixek. Aurrena inguruko hots bakoiztu latzak adituz hasten zen; hurrena soinu zakar sakabanatu horiek denak batera bilduko balira bezala, eta elkar edertuko balute bezala, beste bigarren maila biribilduago eta finago batera pasako zen, izadi osoaren, biziaren, uraren, itsasoren edo J. S. Bachen musika aditzera; eta azkenik hirugarren maila batera igoko zen, esan nahi baita, munduko biziari darion funtsezko musika biribildu eder hori purifikatu eta jainkotu ondoren, hartan xoratzera.

Gauzak horrela, Orixeren sinismena enpirikoa da kasik. Berak bizi izandakoan oinarritua. Hautzaro tragiko bakarti bateko bizikizun trinkoen gainean eraikia. Batek haina bizirik ezagutu zuen iloba Joxemari Aranaldek ere aitortzen du hori, *sakristi usaia* zeriola esanez zetozeinei ezezka, *Jainkoaganako eskola ondo etxekoa zuela* ozen erantzunez. Etxekoa ezezik baita *larrekoa* ere. Aurrez aipatu gabeko pasarte hartu behar eta, hara «*Angelus*» poema bera, horren lekuko:

*Mendian nintzan. Bi errietako ezkil urbillen dandara
 urrenez urren. Aiek ekarriz lagun datorkit iparra
 Txapela erantzi, makila tinka, begi biotz oiñetara.
 Etxait aztutzen barnean ordun sumatu nun poz-ikara.
 «Jaunaren ITZA gizon egin zan» dio ezkillak durundiz.*

*Lur zabalean barreiatzen du berri au zelaiez, mendiz,
millaka biotz dardaturik egunean iru aldiz.
Oartzun ori ez dut galdu nai, oroitzapenez, belarriz.*

*Ardietara noa goizean, alai dut argi-ekzila;
ardietatik nator gauean, alai dut illun ekzila
Eguerdian ez entzunik ere, mendian ardien billa,
itzal motxena dudan orduan egin dut otoitz umilla.*

*Etzait itzali belarritik, bi errietako dandara;
jai bezperako aren aldean sakona baitu zirrara.
Etzait aztu, ez, odoi gaiso ark eman zidan poz-ikara,
ipar legunak ezur-mamitan eragin zidan dardara.*

*«Jaunaren ITZA gizon egin zan» daukat belarri zokoan.
Ardik ez ain ots bizi entzuten nai zintzarria lepoan.
Joaz, entzunez, oituz, aztuz, ark sumatzen du kentzekoan.
Auznar eta auznar berriz, nik beti egi au nere gogoan.*

Ohartu izanen zara, nola konparatzen duen poetak bere burua ardi joaldunarekin. Hark joalea kentzean sumatzen duen gauza beratsua sumatzen dizu Orixek, ohizko hots guziei entzungor eginik, bere baitara isilean biltzen denean. Orixe mistikoa ulertzeko, Nikolas larregizona ezagutu beharra dago nahitaez. Nekazaritza eta artzaintza giroa inoiz bizitu eta sentitu ez duenak, askoz ere neke haundiagoa du Orixeren edertasun poetikora heltzeko; are gehiago, sekulan ez da iritsiko Orixe behar bezala ahogozatzen. Beraz, ez da harritzeko, xangoxuri kaletarren gizaldiak, Orixe errepus utzi izana.

Bukatzeko, entzun dezagun, urteak gerozago, fedea gogo betean bizi zuela, hilagineko modura Orixek kantatu zuen hau:

*Arnas au aitagana daukat intziri
biotzez onen lagun bear nuke beti
Arnasak diraudano Arnas barnago oni
lagun diodan soinu agorrago oneki.*

*Aize ta arnas, indarka alperrik naiz ari
ene ezpainak legor ta soinuka belarri.*

*Arnas soil hau entzunaz, Zure arnasari
lagun egin zaiodan alde bage emendi,
betibateko ots ontaz, eltzagor iduri,
Zure musika mintxo barrenagoko ori.*

Hor ere, atzenean, eltzagorra zer den ezagutu egin behar! Haren soinu zorrotzak gaez basapiztien belarrietan eragiten zuen heriosurraz jabetu egin behar! Horra hor adibide argi askia: gure tresnen, abereen, landareen, izanera eta erabilera ezagutu ezean, nola geuregandu behialako hitzaren ederra?

Alperrikako esplikazio luzetan aritzea sekula ez da nere gogoko izandu. Orixeren belarri kontu honetan gogaide dudanari, horra argibide batzuk eman. Ez dut beste esatekorik. Ez bailitzake munduan, erabateko argitasuna baino gauza asperragorik.

Azkena jo baino lehen, lan hau tajutzeko datu bila ari naizela, bidean

aurkitu dudana pasarte baten aipamena egin nahi nuke. Lan honen bukaeran hau aipatzera derriortua nagoela iduritzen baitzait kasik. Gainera, hagitz egokia baitirudi, nik Orixeren *belarri kontua* aztertzearekin adierazi nahi izandu dudana biribiltzeko. Honatx bada, **Joxe Azurmendik** «*Zer dugu Orixeren alde*» liburuan *Itz eta Mintzo* poemaz ari delarik, 231 orrialdean dioena:

«*Hemen Orixeren berezitasun bat seinala genezake. Inportante delako baino kurioso delako. Baina, ederki adierazten digu, nola gizonak, poetak eta mistikoak bat egiten duten Orixen baitan. Sustrai bera duten. Entzumena da seinalagarri hori. Ikusle bai; baina, batez ere entzule baita Orixen. Artzaina. Belarri gizona da Orixen. Lan oso baterako lain emango luke gai honek*».

Txomin Agirrerren «Garoa» elaberriko Joanes ere artzaia da, eta hartaz, deus baino lehen, hauxe nabarmentzen du egileak, aurren aurreneko atalean:

Ernaiak ziran Joanesen belarriak. Oso egiña zegoan Joanes mendi-oiartzun guztietara. Mila aldiz bai entzun zituan, bakartasunaren erdian jarrita zegoala, urrutiko trumoiaren orrua, ekaitz aizearen durundia, artzaiaren deadar luzea, egurgilearen aizkorakada neurtua; basaurdearen arnasortsia, otsoaren alaraua, azeriaren zaunka, beorren irrintzia, mozoloaren oiua, basauantz bildurtiaren zalaparta; abere arranen dulun-duluna, ardiene bee negartia, suge zarraren txistua, belien garraxi latza, sosoaren txortxorra, txori kantari askoren txiotxo alaia, errekaen pol-polla, zugatz ostroen pir-pir biguna, eltxo gogaikarrien zunburruntxoa... Itz gutxitan esateko, izakiak berez dituan ta mendi basoetan diran abere, pizti ta sortutako gauza guztien amaigabeko soñu txiki ta andi, ixil ta bizi, garratz eta gozo, mingarri ta eztsu, pozkor ta ikaragarritzko danak.

Halare, Joanesen ordez, Nikolas patuko bagenu pasarte horretan, hotzen zerrenda oraindik asko luzatu beharko genuke. Gutxinez, niri izkribuño hau luzatu zaitan haina bai.

LABURPENA

Nikolas Ormaetxea «Orixe» olerkari handia eta klasikoaren jakitun ernea izan da, zalantzarik gabe, euskararen entzumenari arretarik gehiena eskaini dion euskal idazlea. Era honetan, hiru maila ongi mugatuak bereizten ditu berak: Hizkuntzaren berezko soinua, barruko doinuaren zurrumuru dirdiratzu goxoa, eta bere izaera osoa antzaldatu zuen isileko Jainko-harremanen mezu zerukoia.

Bere olerki lanetan jasotzen da horrelako zerbait, eta hori da saiakera labur honen aztergaia.

RESUMEN

El gran poeta y humanista clásico Nicolás Ormaetxea «Orixe» es, sin duda, el escritor vasco que más atención ha prestado al aspecto auditivo de la lengua vasca. En este sentido, «Orixe» destacó tres niveles bien definidos: Todos los sonidos naturales, el cristalino murmullo de la música interior, y el mensaje trascendente de la comunicación con Dios que transformaba todo su ser.

Todo ello quedó plasmado en su obra poética y constituye el tema de este breve ensayo.

RESUME

Le grand poète et humaniste classique Nicolas Ormaetxea «Orixe» est, sans doute, l'écrivain basque qui a le plus fait attention à l'aspect auditif de la langue basque. Dans ce sens, «Orixe» a souligné trois niveaux bien définis: tous les sons naturels, le cristallin murmure de la musique intérieure et le message transcendant de la communication avec Dieu qui transforme tout son être.

Tout cela s'inscrit dans son oeuvre et constitue le sujet de ce bref essai.

SUMMARY

The great poet and classic humanist Nicolás Ormaetxea «Orixe» is certainly the Basque writer that has paid more attention to the auditory aspect of the Basque language. To this effect, «Orixe» emphasized three levels well defined: all of the natural sounds, the limpid murmur of the inner music and the transcendental message of the communication with God that transformed his whole being.

All that turned into his poetical work and constitutes the subject of this short essay.